

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA  
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

**LAIKOA:  
KRISTAU NORTASUNA ETA ELIZ EGINKIZUNA**

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA  
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

**1996, GARIZUMA–PIZTUERA KO PAZKOA**

**AURKIBIDEA**

---

**SARRERA**

Aurrez ere batera eginiko Idazkien harian (1. z.)  
Elizaren Irakaskintzak dioena (2. z.)  
Idazki honen helburuak (3. z.)  
Edukia (4. z.)

**I.- GIZARTEAREN ETA ELIZAREN EGOERARI BEGIRADA**

- a) Laikoa gure gizartean (5. z.)
- Ingurune ekonomikoa (6-7. z.)
  - Ingurune politikoa (8-9. z.)
  - Bakearen arazoa (10-11. z.)
  - Ingurune kulturala (12-13. z.)
  - Familiaren egoera aldakorra (14. z.)
- b) Laikoak lekuan lekuko gure Elizetan (15. z.)
- Eliztar izatearen kontzientzia (16-19. z.)
  - Norberaren bokazioaren eta erantzukizunaren kontzientzia (20-21. z.)
  - Laiko antolatuak (22. z.)
  - Heziera eta prestakuntza (23. z.)

**II.- SEKULARTASUNA, ELIZA OSOAREN EZAUGARRI**

Eliza mundu honetan (24. z.)

Eliza osoa izan da ebanjelizatzeria bidalia

- Sekulartasuna, Elizaren berezko alderdi (25. z.)

- Eliza osoa, batasunaren eta itxaropenaren hazi (26. z.)

Elizaren sekularotasuna, bere zereginaren zerbitzuan (27. z.)

Eliza munduarentzat, elkartasunezko Eliza (28. z.)

Laikoak (29. z.)

Mundu sekularraren autonomia (30. z.)

Tentaldiak eta gaizki ulertzeak (31. z.)

«Arima gorputzean bezala» (32. z.)

### **III.- LAIKOAREN IZATEA ETA EGITEKOA (33. z.)**

Jesusen jarraitzaile

- Nor bakoitzari egindako deia (34. z.)
- Seme-alabatzako esperientzia eta Aitaren esaneko izatea (35. z.)
- «On egiten igaro zen» (36. z.)

Jesusi jarraitzea eta bidalketa (37. z.)

Kristoren hiru ministeritzetan partaide

- Kristo Apaiz, Profeta eta Errege (38. z.)
- Aldarrikapena eta testigantza (39. z.)
- Laikoen apaizgoa (40. z.)
- Kristo Jaun bakarra dela aitortzea (41. z.)

Jarraipenaren espiritubidea

- Laikoaren espiritubidea (42. z.)
- Hitzaren eta bizitzaren entzule (43. z.)
- Ebanjelioari erro-errotik jarraitzea (44. z.)
- Zoriontasunen espiritua (45. z.)
- Berri Onaren zabaltzaile (46. z.)

Mundura bidaliak

- Elkar «kutsatuz» ebanjelizatzea (47. z.)
- Munduko bizitzan txertatzea (48. z.)
- Denen onaren zerbitzuan (49. z.)
- Nola egon munduan (50. z.)

Jainkoaren Herriko kide arduratsu eta ekile

- Espirituak arnasberriturik, kide eskubidedunak (51. z.)
- Bokazio, karisma eta dohain desberdinak (52. z.)
- Laikoen ministeritzak (53. z.)
- Ordenatik datorren ministeritza, batasun- eta elkartasun-ezaugarri (54. z.)

Apostolutza bateratua (55. z.)

Laikoen harremanak Hierarkiarekin (56. z.)

- Jainkoaren Hitzeraiko eta sakramentuetarako eskubidea
- Bere beharrak, nahiak eta iritziak adierazteko eskubidea
- Menpekotasuna, elkartasuna indartzeko
- Autonomia eta ekimena

Pastoral Kontseiluak, partehartze- eta erantzukizun-ihardunbide (57. z.)

#### **IV.- LEKUKO GURE ELIZENTZAKO ERRONKAK (58. z.)**

Laikoen espiritubidea lantzea

- Espiritubidearekin esan nahi duguna (59. z.)
- Jainkoaren gizon eta emakume (60. z.)
- Ebanjelioko baloreak sustraitik bizitzea (61. z.)

Bakarkako apostolutza balioztatu eta indartzea

- Bataiatu bakoitza, Kristoren bitartekari eta Elizaren azalpen (62. z.)
- Gizabanako bakoitzarenganako arreta (63. z.)

Laikoen ebanjelizatze-ekintza ezkontzan eta familian

- Ezkontza eta familia, ebanjelizatze-ekintzarako lehen alorra (64. z.)
- Ezkontza- eta famili pastoraltza zaindu beharra (65. z.)

Apostolutza bateratuan parte hartzea

- Horren zergatia eta helburuak (66. z.)
- Arakatu eta koordinatzea (67. z.)
- Ekintza Katolikoa sustatzea (68. z.)

Gizarteko ingurugiroen pastoraltza lantzea (69. z.)

- Lan-mundua (70. z.)
- Profesionalen ingurunea (71. z.)
- Baserri-ingurunea (72. z.)
- Gaztedia (73. z.)
- Ikasleen mundua (74. z.)
- Marjinazio-giroak (75. z.)

Kultura balore ebanjelikoetatik arnasberritzea (76. z.)

a) Solidaritzazko kulturaren alde

- Solidaritza eta sozio-ekonomi alorreko krisia (77. z.)
- Oraintxedanik ekin beharra (78. z.)
- Solidaritzaren alderdi unibertsala (79. z.)

b) Elkarrizketaren eta bakearen kultura indartzea

- Istiluak eta indarkeriaren kultura (80. z.)
- Elkarrizketa eta bakearen kultura indartzea (81. z.)

- c) Emakumearen duintasunaren aitormen betearen alde
- Gaur egungo sentiberatasun berezia arazo honen aurrean (82. z.)
  - Emakumearen garapen osoaren alde (83. z.)

Heziera egokiaren beharra

- Laikoak hezi eta trebatzearen erronka (84. z.)
- Heziera berezitua (85. z.)

## **V.- IHARDUERARAKO ONDORIO BATZUK (86-88. z.)**

# SARRERA

## Aurrez ere batera eginiko Idazkien harian

1. Elizbarruti hauetako Gotzain garenok batera egin berri dugun lehenengo Gutunean aditzera eman genizuen, «elkarrekiko lan bateratua egiten jarraitzeko borondatea daukagula, gure Elizen bizitzarako eta pastoral ekintzarik garrantzitsuenetarako mesedegarri eta bizieragile izan daitezkeen gauza guztietan»<sup>1</sup>. Eta orain eskuratzen dizuegun Pastoral Idazki hau argitaratuko genuela iragarri genizuen.

Oraingo honetan, laikoak izango ditugu aztergai, hots, gizon eta emakume bataiatuak, nork bere bizitzeko eta famili, lanbide- edota gizarte-bizitzeko gorabehera guztiak Ebanjelioaren argitan eraman eta Kristoren Elizako kide izanez bizi nahi duten gizon eta emakume bataiatuak. Kristori jarraitzen eta Kristo aitortzen eta gure herrian gaur egun Haren helburuaren alde lan egiten dutenekoak zarete zuek guztiok ere. Elizkide oinarrizko zarete zuek ere, zeuen izatez.

## Elizaren Irakaskintzak dioena<sup>2</sup>

2. Vatikanoko II. Kontzilioak esan zuena leial jaso nahi dugu. Hura izan zen lehen kontzilioa dokumentu bat oso-osorik laikoei eskaini ziena. *Apostolicam*

---

<sup>1</sup> Bater a egindako Gutuna, Iruñe eta Tuter a, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako kristauei, 1996ko otsailaren 10ean.

<sup>2</sup> Elizaren Irakaspeneko idazkien aipamena egiteko laburdura hauek erabiliko ditugu:

- AA = Vatikanoko II. Kontzilioa, Laikoen apostolutzari buruzko Dekretua, *Apostolicam actuositatem*.
- AG = Vatikanoko II. Kontzilioa, Elizaren misiolari ihardunari buruzko Dekretua, *Ad gentes*.
- DV = Vatikanoko II. Kontzilioa, Jainkoaren Agerpenari buruzko dogma-konstituzioa, *Dei Verbum*.
- GS = Vatikanoko II. Kontzilioa, Eliza mundu honetan gaiari buruzko Konstituzioa, *Gaudium et spes*.
- LG = Vatikanoko II. Kontzilioa, Elizari buruzko dogma-konstituzioa, *Lumen gentium*.
- PO = Vatikanoko II. Kontzilioa, Apaizen ministeritza eta bizitzari buruzko Dekretua, *Presbyterorum Ordinis*.
- SC = Vatikanoko II. Kontzilioa, Liturgia santuari buruzko Konstituzioa, *Sacrosanctum Concilium*.
- EAK = *Elizaren Araudi Kanonikoa*.
- EN = Paulo VI.a, Gaurko munduan Ebanjelizatzeari buruzko Aholku-idazki apostolikoa, *Evangelii nuntiandi* (1975).
- LE = Joan Paulo II.a, Entziklika-gutuna giza lanari buruz, *Laborem exercens* (1981).
- CFL = Joan Paulo II.a, Sinodo ondorengo Aholku-idazki apostolikoa laikoen bokazio eta zereginari buruz Elizan eta munduan, *Christifideles laici* (1988).
- CLIM = Espainiako Gotzainen Batzarra, *Los cristianos laicos, Iglesia en el mundo*. Elizaren bizitzan eta gizartean laikoen erantzukizuna eta esku hartzea sustatzeko ekintzarako argibideak eta proposamenak (1991).
- EFJE = Iruñe eta Tuter a, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Idazkia, *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan* (Piztuerako Pazkoa, 1994).
- FAG = Iruñe eta Tuter a, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Idazkia, *Familia aurkitzea gaur egun* (Piztuerako Pazkoa, 1995).

*actuositatem* deritzan dokumentua da hori. Agiri horrek garatu egiten ditu *Lumen gentium* dogma-konstituzioan emanak ziren oinarrizko irakaspenak. Elizak munduaren aurrean beste era bateko jarrera hartzea eta sekularrak Elizan eta gizartean duen eginkizun berezia aurkitzea batera etorri ziren. Eta hori ez zen halaberharrez gertatu. Pastoral Idazki honetan ere oso batera joan behar dute, bai laikoaren izatea ezagutu eta bultzatzea, bai gaurko munduarekin elkarrizketatu eta berorretan txertaturik bizitzeko jarrera hartzea.

Laikoaren nortasun eta eginkizunari buruz geroztik atera diren beste dokumentu batzuk ere kontuan izan ditugu. Honako hauek aipatu nahi ditugu horien artean: Laikoaren bokazio eta eginkizunaz 1987an izan zen Gotzainen Sinodoaren ondoren, Joan Paulo II.a Aita Santuak argitaratu zuen *Christifideles laici* Aholku-idazki apostolikoa, eta Espainiako Gotzainen Batzarrak ekintzarako argibideak proposatzeko atera zuen *Kristau laikoak, Eliza munduan* dokumentua<sup>3</sup>.

Aurrez idatzitako beste Idazki batzuen harian doa oraingoan ere batera idatzi dugun Pastoral Idazki hau. Hona hemen azken idatziak: *Ebanjelizatzea, federik ezak jotako egunotan* eta *Familia aurkitzea gaur egun*. Ongi dakigu Elizaren ebanjelizatze-lana «laikoek egingo dutela, edo, bestela, ez duela inork ere egingo»<sup>4</sup>.

## **Idazki honen helburuak**

**3.** Helburu batek baino gehiagok eragin digu Pastoral Idazki hau idaztera. Lekuko gure Elizetako laiko zaretenoi zeuen bokazioaren handiaz ohartzen eta berorretan sakontzen lagundu nahi dizuegu lehenbizi. Fededun bakoitzaren bizitza proiektu edo egitasmoak oinarri sendoa izan dezan nahi dugu, gizarte honetan eta Eliza honetan hazi eta garatu ahal dadin.

Eliza hauetako fededun guztiak eta bakoitza ohartarazi nahi genituzke, ebanjelizatze-lanean gero eta parte handiagoa har dezaten, kristau-elkarteko kide guztien egiteko eta erantzukizuna baita.

Eliza eraikitzeke egiten ari zareten ahalegina eta gure munduaren erdian Ebanjelioa hitzez eta egitez agertzeko ari duzuen lana argitu eta lagundu nahi genuke. Horretarako, zuen gogoeta eta ekintza zaindu eta bultzatu nahi dugu.

Bestalde, apaizei eta geure buruei ere Elizan dugun tokian jartzen eta dugun eginkizuna betetzen lagundu nahi diegu; baita artzain-ministeritza ardura-kidetasunez betetzen ere, Jesukristok bere Elizari eman zion egitekoaren zerbitzura beti egonez. Jainkoaren Herriko kide eta anai-arreba egiten gaitu Bataioak. Apaizgintzako sakramentuagatik, apaiz eta gotzainok kristau-elkartearen zerbitzari gara. Jesus Jaunaren izenean betetzen dugu geure zerbitzu edo minis-

---

<sup>3</sup> «Laiko» eta «sekular» hitzak ez dira berdin-berdinak, baina Pastoral Idazki honetan biak erabiliko ditugu, bata zein bestea. Aita Santuaren Aholku-idazkien maiz erabili ohi den «*christifideles laici*» latinezko esaera aberatsago eta zehatzagoa da euskarazko kristau laikoak baino.

<sup>4</sup> CLIM 148.

teritza. San Agustinek zioen bezala, zuentzat Gotzain garela eta zuekin kristau garela esan behar dugu. Gotzain izatea kargua da; kristau izatea, grazia<sup>5</sup>.

Azkenik, beste gizon eta emakume batzuk ere kontuan izan nahi ditugu zuei hitz egitean: bizitzeko zentzuaren bila dabilzan edota, arrazoi batengatik nahiz besterengatik, Elizarengandik urruti bizi diren, eta Elizaren baitan noiz-bait erakutsi zieten fedea galdua duten gizon eta emakumeak, alegia. Ziur gaude baduela kristau-mezuak halakoen bihotzetaraino sartzeko behar den berezko indarra, batez ere Jainkoaren Herria egiten dugunok leial bizitzen eta gogoz testigantza ematen dugunean.

## **Edukia**

**4.** Bost atal nagusi ditu dokumentu honek. Elizan eta gizartean laikoak duen egoeraren sintesia eskainiko dugu lehenbizikoan. Ondoren, II. eta III. atalean, teologi gogoeta egingo dugu, sekular izatea Eliza osoaren ezaugarria dela adieraziz eta, gainera, laikoak Elizan zein nortasun eta egiteko duen argituz. Gure Elizek beren ebanjelizatze-lana bultza dezaten ekinbide-hariak eta proposamen praktikoak eskainiko ditugu IV. atalean. Azkenik, V. atalean, ekinbiderako izan daitezkeen ondorioak jasoko ditugu zehazkiago.

---

<sup>5</sup> Ikus san Agustín, *Serm.* 340, 1: PL 38, 1483, LG 32. zenb.an aipatua.

# I.- GIZARTEAREN ETA ELIZAREN EGOERARI BEGIRADA

## A) LAIKOA GURE GIZARTEAN

5. Aldi eta toki zehatz bakoitzean Jainkoaren Erreinua han dagoela testigantza emateko eta Erreinu hori bizitzara eramateko eginkizuna betetzen ari da Eliza historian barra, Espirituak eraginik. Ziur dakigu, Erreinu hori giza historian diren eguneroko gertaeretan betetzen eta zabaltzen dela. Horregatik, gu bizi garen gizartearen eta Elizaren egoerari artzain-begirada eman nahi diogu, beraiek dituzten argilunak ikusi eta Espirituaren deiak entzuteko. Gure Elizek eta, batik bat, laikoak beren ebanjelizatze-lana zein ingurune sozialetan egin behar duten, eta ingurune horrek dituen ardatzak adierazi nahi ditugu.

### • *Ingurune ekonomikoa*

6. Bada zenbait urte krisi ekonomiko sakonean murgilduak gaudela. Krisi honek ahulenak ditu gehienbat zigortzen. Azken hilabeteotan, badira irtenbidea ikusarazten duten argi-izpiak; hala ere, langabezia-maila ikaragarria aldatu ezinik eta lana gero eta kolokago ageri da. Gaur egungo sistema sozio-ekonomikoak jende asko kaltetua gertatzea dakar, eta gizartean inor ez izaera edota baztertua gelditzera kondenatzen du asko. Eta hori guztia, Iparraldeko gure nazio aberats eta indartsuen, eta Hegoaldeko nazio gero eta behartsuago eta menpekoagoen artean dagoen tentsio bidegabe eta eraman ezinaren erdian gertatzen da.

Ingurune honetan denok nabari dugu elkartasunik ezaren tentaldia. Fededunok hor gabiltza maiz, iritsi dugun bizitza mailari eutsi nahiak eta Ebanjelioak eskatzen digutenaren arteko ezbaian; Ebanjelioak, izan ere, zoriontsu aitortzen ditu behartsuak, eta Jesusen jarraitzaileek halakoekiko konpromezu eraginkorra izan behar dutela dio. Hala ere, eta zuzen izateko, aitortu beharra dugu aurrera egin dugula, goseturik, miserian nahiz baztertuak eta gutxietsirik daudenei diru- nahiz giza laguntza emateko ekintzetan. Oso esankorra da, adibidez, beren lansaria lanik ez dutenekin banatzeko erabakia.

7. Egoera ilun horretan bada, hala ere, itxaropena izateko ezaugarri nabarmenik. Elkartasun eta solidaritzan oinarrituriko eredu sozio-ekonomikoen alde hitz egiten da, kapitalismo liberalak dituen ereduak baztertuz. Naziorik behartsuenen aldeko elkartasun-zeinuak gero eta ugariago dira. Lana, hain ondasun urria izanik, egokiago banatzearen aldeko oihuak ere badira, eta hori txalogarria da.

### • *Ingurune politikoa*

8. Ingurune politikoari begiratzean, gehienak etsipenak hartuak ikusten ditugu kezkatuak. Politikagintza bera ere izengaldua dago, bizitza publikoan azken ertzeraino eraman nahi izan den pragmatismo itsuarengatik eta, demokrazialdian aspaldidanikoak izan arren, azken hilabeteotan salatu dituzten ustelkerien handiagatik. Giza bizikidetzaren alor honetan utzikeriaren tentaldia oso handia da. Fededunok ere badugu dena utzi eta konpromezuari ihes egiteko



tentaldia, edota norberaren iritzi eta aukera politikoak Ebanjelioaren argitan ez kritikatzeko tentaldia.

**9.** Hala ere, bada bizikidetzarako erarik egokiena demokrazia dela oroitarazten duen gizon eta emakume fededun nahiz fedegabekorik, demokraziak askatasun- eta partehartze-giroa behar duela eta pazientziaz egunero egin beharreko zerbait dela kontuan izanik. Gure gizartean, hainbeste iritzi eta talde desberdin izanik, ezinbestekoa da elkarrizketa eta joera batzuen eta besteen arteko kontzientzia. Hala ulertua dute, gizarte zuzen eta senidekoiagoa egiteko beren denbora eta eginahalak politika-alorretan ematen dituztenek.

- ***Bakearen arazoa***

**10.** Azken hilabeteotan gordinago egin da ETaren indarkeria terrorista, giza eskubideak ukatuz, bizitzeko eskubidea, batez ere, eta herri honetan gehienek nahi dutena behin eta berriz mesprezatuz. Bestalde, ez dago ahazterik garai batean GALEk, oinarrizko eskubideak. ukatuz berak ere eta, gainera, dirudienez, Estatuko goi-mailetako babes berekin zuela, egindako terrorismoak izan zituen ondorio sozialak. Atxilotuen eta presoek eskubideak ez dituzte beti behar bezainbat begiratzen. Tamalez, gogorkeriazko manifestapenak, bai hitzezkoak bai egitezkoak, ohiko bihurtu dira gure artean, tokiren batzuetan hiritarren arteko borroka izateraino.

**11.** Beste hau ere esan beharra dago, ordea: gizartean gero eta kementsuago dela eramanpena eta elkarrizketaren kultura sortzearen aldeko lana, eta gero eta adoretuago dela hiritar askok eta talde askok bakearen eta adiskidetzaren alde egiten duten ahalegina. Eta ezin da ukatu, solidaritza, baketsu izatea eta horrelako baloreak agertzen ari direla. Hala ikus daiteke, adibidez, kontzientzi eragotze edota, legezko baliabideak erabiliz, agerian indarkeriaren aurka jartzen direnei eta indarkeriaren ondorioak salatzen dituztenei begiratzen badiegu. Eta hau guztia nabarmenago da gure herriko gaztedian. Halako ekimen eta ekintzetan kristauak ere ari direla jakiteak poza ematen digu eta itxaropenez betetzen ditu lekuko gure Elizak. Etsirik edota itxaropena galdurik gelditu ordez, Jainkoaren Erreinua, astiro bada ere, aurrera doala esan nahi dugu horrela.

- ***Ingurune kulturala***

**12.** Dirudienez, sekularizazioak eratu du gaur egungo kultura Mendebaldean. Halakoa da gure egoera. Garai batean erlijiotasunak oso eragina zegoen bizitza, bai bakoitzarena, bai herri osoarena; orain, aldiz, beste garai batean bizi gara. Mundu honetako errealitate inmanenteak bere ahalmenez iraun dezakeela uste da; giza izateak ez du transzendentziaren beharrik irauteko. Aldi berean, ordea, zentzua galdu izanaren krisi larria bizi dugu geure inguruan. Askotan uste izaten da, erlijioa giza arrazoiaren etsai dela edota intolerantzia dakarrela. Norberaren gordeleku pribatura mugatua egon behar duela uste da. Joera honek lausotu egin du Jainkoarekiko oroipena, eta ez da Jainkoaren beharrik ikusten giza bizikidetzaren solidaritza eta askatasunez antolatzeke.

Giro honetan, Ebanjelioaren argiz izan behar genukeen adinako kontra egote edo kontrastea ez izateko arriskua dugu kristau-elkarteko kideok; baita

une bakoitzeko ohitura eta jokabideetara errazegi moldatzeko arriskua ere, Jesusi egiaz jarraitzeak eskatzen diguna aintzakotzat hartu gabe.

**13.** Bestalde, hiriko kultura eta pentsaera gero eta nagusiago egiteak alde batera utzi ditu bizitzeko beste era tradizional batzuen ezaugarri aberatsak. Hala gertatzen ari da baserri- eta arrantzale-giroko bizitzarekin, nahiz eta gure artean oraindik garrantzi handia duten. Kultur aldaketa hau bizkorregi gertatzen ari delako, norabiderik eza eta balore-krisia sortzen dira. Garai batean zuten biziera agudo aldatzen ari dela ikusten dute gure pertsona nagusiek.

Gure ingurune kulturean, gainera, era askotako ohituren eta bi hizkuntzen arazoa dugu. Hizkuntza hauek ez dute zabalera bera elizbarruti eta eskualde batean eta bestean. Egoera hau elkar aberasteko baino gatazkak sortzeko gehiago dela uste du askok. Eliz elkarrekin eta elizkideekin ere bizi dute tentsio hori bera. Oraindik ere ez da erraza gure talde eta elkarrekin bi hizkuntzak zuzen eta egoki erabiltzea, liturgian eta katekesian batik bat.

Kultur desberdinetako giro honetan, goraiatzekoa da irekitasuna, eramanpena eta elkarrizketa bultzatzen eta pentsaera nahiz kultura desberdinetako pertsona eta taldeak elkarrekin alde batzuek ari duten lana. Hori egin behar luke kristau-elkarrekin ere, batasun-leku izanez, harrera egiteko eta elkartzeko leku izanez.

#### • *Familiaren egoera aldakorra*

**14.** Gure gizarteak bizi duen kultur aldaketa sakonak badu, noski, eraginik gure familietan, iazko Pastoral Idazkian<sup>6</sup> luze eta zabal aztertu genuen bezala. Pertsonaren autonomiari halako balioa emateak, elkarrizketa aintzakotzat hartzeak, emakumea lanbideetan sartzeak, bizi-maila igotzeak eta horrelako beste faktore batzuek famili erakundean aldaketa sakona eragin dute, baita senideen arteko harremanetan ere. Aldaketa guztietan bezala, honetan ere balore-aldaketa gertatzen ari da; berrikuntza batzuk onak gertatzen dira; baina beste tentaldi eta arrisku batzuk ere agertzen ari dira. Dena dela, ezin da ukatu gaur egun familia ez dela ikusten eta bizitzen garai batean bezala.

Ezkon- eta famili bizitzan arazo desberdin eta zail ugari bada ere (askatasunean eta solidaritzan hezi beharra, fedea eta baloreak erakutsi beharra, belaunaldi arteko kontra jarrerak izatea, seme-alabak ekartzea, maitasuna eta leialtasuna bizitzea, besteak beste), esan beharra dugu badirela elkarrizketa- eta askatasun-gune, eta kristau- eta giza heziketa hartzeko benetako eskola gertatzen diren familia fededunak. Baina aitortu beharrean gara, Ebanjelioan oinarritutako aukera ez eskaintzeko arriskua ere badugula, edota inguruko giroak eraman gaitzan uzteko arriskua.

## **B) LAIKOAK LEKUAN LEKUKO GURE ELIZETAN**

**15.** Ingurune sozialak bere eragina duen bezala laiko kristauen jokabide eta konpromezuetan, era berean era askotako laiko-egoerak aurki daitezke eliz el-

---

<sup>6</sup> Ikus FAG 3-35. zenb.

kartean. Hain zabala izanik laikoen kopurua, oso ezaugarri desberdinetako egoerak ikus daitezke hauei buruz Elizan.

- ***Eliztar izatearen kontzientzia***

**16.** Eliz elkarte barruko sekular-talde handi bat, gizonezko eta emakume, gehiago isila dela esan genezake. Elizkizunetara gehienetan edo sarritan behintzat joan ohi diren kristauak ditugu; beste ekintzetan ere tarteka parte hartzen dute. Eskakizun gutxiko taldea dira, esker onekoak eskaintzen zaizkien arreta eta zerbitzuengatik, eta orokorki uste ona erakusten dute kristau-elkarteko arduradunek egiten duten lanari buruz. Talde honen barruan oso era desberdineko pertsonak daude: erlijio-sen sakoneko jendea dira, kontzientzia moral finekoak eta eliztar bezala sustraizidunak; gehienbat bakoizkako erlijio-eran heziak. Inoiz, eguneroko bizitzarekin loturarik gabeko fedea daukaten gizon eta emakumeak dira; ez dute ardura gehiegirik beren bizitzako alor desberdinak kristau-irizpideen argira taxutzeko.

**17.** Badira gure artean eliz kontzientzia oso ahuleko edo batere gabeko fededunak ere. Hainbat kasutan, «bakoitzak bere erara» bizi dute beren kristau-esperientzia, edota beste fededunekin zerikusirik gabe edo gutxieneko loturaz. Hauek kristau-elkartearekin dituzten harremanak, eskuarki, sakramentuospakizun jakin batzuk eskatzeko izan ohi dira (ezkontzak, bataioak, hiletak), edota noizbehinka horietara joaten direlako. Beren buruak fededuntzat hartzen dituzten gazteetako askok oso gutxitan azaltzen dute kanpora beren erlijio-sinesmena. Talde batzuk ez dute aintzakotzat hartzen Eliza, ezta beronen argibideak ere, edota beren kristau izatea artzainen kontrako jarrera hartuz bizi dute beti.

Elizatik urrutiratu izanaren era askotako arrazoiaren artean, hauek aipa ditzakegu: bakoizkako eran ulertutako erlijio-bizitza, norberaren kontzientziari bakarrik begiratzen diona, alegia; kristau-fedea modu espiritualistan ulertzea; erakunde den guztiarenganako mesfidantza; muturreraino eramandako fedearen ideologizazioa; Elizaren irakaspen edo jokabide batzuek sortutako nahigabea eta etsipena.

**18.** Bada gero eta ugariagoa den laiko-multzo batere, guztiz ohartuki bizi duena Jesusen jarraipenerako bokazioa, eta modu heldu eta eraberrituan eliztar direnak. Jainkoaren dohain bezala eta norberak askatasunez emandako erantzun bezala balioztatzen dute beren fedea; sakramentu-bizitzan parte hartzen dute, badituzte harremanak beste fededunekin, eta jarrera irekia, kritikoa eta itxaropentsua daukate gaur egungo sozio-kultura alorreko eta Elizaren beraren barruko aldaketen aurrean, nahiz eta beren zailtasun eta istiluak izan. Era berean, sakontasunez, itxaropentsu eta leialki bizi dute, aldi berean giza eta eliz eskatzeko kide izateak sortzen dituen tirabirak, Espiritua gidari dutela gero eta zuzenagoa eta Jainkoaren Erreinuaren arabera izango den mundua eraikitze-lanean.

Laiko hauek zenbaitek inolako antolamendutan esku hartzen ez badu ere, bere bizitzako alderdiak Ebanjelioaren argira zuzentzen ahalegintzen da; aitoritzen duen fedearen eta eguneroko bizitzako ihardueraren arteko lotura egi-

ten saiatzen da, bai bere bizitza pertsonal eta familiakoan, bai gizarteko harremanetan, lanbideko alorrean edota herri- nahiz politika- alorreko jokabideetan.

**19.** Eliz bizitzan gehien parte hartzen duen laiko-taldea emakumeak dira. Honen badu zerikusia sozial alorrean azken urteotan orokorki gertatzen ari denarekin: gero eta gehiago, indartsuago eta ohartukiago azpimarratzen ari dela, alegia, emakumearen duintasuna eta eskubide-berdintasuna. Hori esanik, ordea, aitortu beharra dago, emakume askok ez duela nabari gure Elizetan behar bezalako harrera egiten zaienik, laikoenak diren eginkizunak eta erantzukizunak beraiei eskaintzeari dagokionaz.

Eliz antolamendu eta zerbitzu gehienetan sarturik daude emakumeak. Hauen esku daude, sarri askotan, kristau-elkartearantz guztiz erabakiorrak diren eginkizunak: fedearen eskualdaketa eta heziera, karitate- eta solidaritza-ekinbideak edota zenbait liturgi zerbitzu. Baina zenbat eta handiagoak diren erantzukizunak eta erabakiak, orduan eta txikiagoa da emakumeek horietan duten eskua. Horrek esan nahi du, bide luzea dagoela ibili beharra, Elizaren barruan gizonezko eta emakume fededun guztiei dagokien berdintasunera iristeko.

#### • ***Norberaren bokazioaren eta erantzukizunaren kontzientzia***

**20.** Jainkoaren Herriko kiderik gehienak ez dira ohartzen, Bataio eta Sendotzaren bidez Jainkoak pertsonalki egiten dien deiaz. Badirudi sekular izatea «ez izate» bat dela, apaiz-ministeritza edota erlijioso-bizitza hautatu ez izanaren ondorio hutsa, alegia. Laikoen gutxiengo batek bakarrik bizi du bere kristau-bizitza bokazio positibo eta berezi baten ikuspegitik.

Hala ere, gero eta gehiago dira, beren kristau-bokazioa heldutasunez eta Ebanjelioaren argira bizitzen ahalegintzen direnak. Oharturik bizi dira, Jesusek bizitza santua ematera deitzen dituela eta Jainkoaren Erreinua eraikitzen lan egitera; pertsonen, taldeen eta gizarte osoaren oraina eta geroa jokatzen ari diren tokian bizitzera, alegia.

Konturatzen gara, batzutan kristau-elkartearen artzainak berak direla, laikoak heldutasunera iristeko eragozpenak jartzen dituztenak. Egia da benetako gogoia eta ahaleginak badaudela, laikoen bokazioa eta erantzukizunak sustatzeko; baina, askotan, laikoarengan ez dugu ikusten, geure pastoral lana egiteko gaia besterik, Elizaren ihardunaren hartzaile pasiboa edota ebanjelizatze-lanerako laguntzaile isila besterik.

**21.** Gure Elizetan ebanjelizatze-sena hazten doan neurrian gero eta gehiago dira, herri-, gizarte- eta politika-alorreko egituretan lan egiteko beren bokazioaz ohartzen diren sekularrak. Hauek dei bat gertatzen dira kristau-elkarte osoarentzat, giza elkartearen erdian eta zerbitzura egoteko bokazioa ahaztu ez dezan.

Bereziki, zenbait guraso kristauek, beren seme-alaben hezieran duten erantzukizunaz oharturik, heziera-egituretan parte hartzen dute eginkorri eta bazkunak eginez. Poza ematen digu, zenbait alorretan borondatez ari diren kristauen kopurua handitzen ari dela ikusteak. Beste hainbatek, batez ere zenbait gaztek, mugimendu sozial alternatiboetan parte hartzen du, gobernuarenak ez diren antolamenduetan, arautu gabeko eta kaleko hezieran, edota drogaren era-

ginpean aurkitzen diren pertsonen zerbitzu eta laguntasunean, eskolako porrotaren edota baztertuen ingurune eta guneetan. Hauek guztiak gaurko Elizaren pozbide eta itxaropiderik ederrenetakoa dira.

- ***Laiko antolatuak***

**22.** Bada, azken urteotan, sortzen eta sendotzen ari den beste zenbait talde (bazkun, mugimendu, elkarte); hauek, lehendik daudenekin batera, fedea landu eta norberegantzeko bide ematen dute. Talde hauek Espirituak Elizari egiten dion balio handiko erregalia dira; alde horretatik, kristau-elkartearen altxor ederra dira, barrutik biziberritu egiten dutelako eta beronen ebanjelizatze-zeregina indarberritzen dutelako.

Ekimen hauek badituzte berekin beren arazoak ere. Ebanjelizatze-bokazioa ahaztu egin daiteke, bere taldearen zerbitzura gehiegi zuzendutako elkar-espirtuaren amorez; baina horrez gainera, txokokeria edo taldekeriaren arriskua dago, nor bere taldea eliz erreferentzia bakartzat hartzekoa, horrela Gortzaina buru duen lekuko Elizaren elkartasuna ahulduz.

- ***Heziera eta prestakuntza***

**23.** Gure Elizetako laikoen egoerari ematen ari garen begirada honetan, beste gauza bat azpimarratu nahi dugu: pertsona batzuek, Ebanjelioaren argira zuzendutako bizitzaren ardatzak elkarrekin lotu nahirik, heziera osoa lortzeko erakusten duten gogoia. Kristau-elkarteetan beren kideen heziera- eta prestakuntza-maila igotzen ari dela sumatzen da. Urteotan ugaritzen joan dira gisa honetako ekimenak, artzainen ardurari eta laikoen gogoari esker.

Hala ere, galdera datorkigu burura: askotan aipatu ohi den laikoen heldutasun-faltaren arrazoia ez ote den, neurri batean behintzat, gaur egun bizi ditugun garaiek eskatzen diguten fede-heziera egokirik eza.

Garbi dago, aurkezpen honetan azaltzen denez, laikoen egoeran sumatzen diren argi-ilunetatik hainbat erronka sortzen dela gure Elizentzat. Ikuspegi honetatik sartu behar dugu, Pastoral Idazki honen ondorengo atalen sakonketa egitera.

## II.- SEKULARTASUNA, ELIZA OSOAREN EZAUGARRI

### Eliza mundu honetan<sup>7</sup>

**24.** Ez daukagu laikotasunaz hitz egiterik, Elizaren alderdi orokorra aipatu gabe eta kristau-elkartea mundu honetan sarturik dagoela kontuan izan gabe. Hori, ordea, ez da arrazoi soziologikoen eskakizun hutsa –sekularrak Jainkoherriaren zatirik handiena direlako, alegia–; arrazoi teologikoak dira hori eskatzen dutenak. Bataioaren ondorioz Jainkoaren seme eta alaba gara, eliz elkarrean sarturik gauden Jainkoaren familiako kide, eta, horregatik, Jainkoaren Herri, Kristoren gorputz eta Espirituaren bizileku. Bataiatu guztiei dagokiena da lehenengoa eta lehentasuna duena; hala adierazten du Vatikanoko II.ak Elizari buruz ematen duen ikuspegian: «Jainkoaren Herriari buruz esandako hori guztia denei dagokie, laiko, erlijioso-erlijiosa eta apaizei, bereizkuntzarik gabe»<sup>8</sup>.

Jainko-herri hau bere osoan, Kristorekin bat egina dagoelako eta Espiritu Santuaren igurtzia duelako, Jainkoaren salbamen-ekintzaren ezaugarri eta baliabide da<sup>9</sup>, aldi eta leku bakoitzean. Guztiei agindu zaien salbamenaren ezaugarri, eragile eta lehen dohain gisa azaldu behar du mundu honetan, historiako egoera guztietan. Ikuspegi honetatik ulertu behar da, Eliza osoak duen sekular edota, nahiago bada, «mundutar» alderdia. Elizak ekartzen du mundu honen erdira salbamena, Jainkoagandik datorrena denez mundu honen ahalmenen gainetik baitago. Hor dago fededun guztien eta Elizaren bokazioaren oinarria ere, Jesusen antzera bizi eta iharduteko bokazioarena, alegia, era berezian egon behar baitu munduaren erdian berarekin bat egin gabe eta nahastu gabe<sup>10</sup>.

### Eliza osoa izan da ebanjelizatzeraren bidalia

#### • *Sekulartasuna, Elizaren berezko alderdi*

**25.** Beraz, sekulartasuna laikoei dagokien ezaugarri izan aurretik, Eliza osoari dagokiona da, eta Elizaren izaeraren osagai gertatzen da. Horregatik, Eliza mundu honetan txertaturik dagoela esatean, Elizak historian duen egoteko era arrunta edo normala adierazten dugu. Eliza osoa da sekularra; hau da, Jainkoaren salbamen-asmotik sortua denez, gizadi osoarekin batera bizi du Jainkoaren historia.

---

<sup>7</sup> Hemen «mundua» esatean Vatikanoko II. Kontzilioak (GS 2) ulertzen duena bera esan nahi dugu: «gizakien mundua, hau da, giza familia osoa eta berau bizi den inguruneko errealtate guztiak; gizadiaren historiaren antzoki den mundua, bere ahalmen, ezin eta garaipenekin; kristauon fedearen arabera, Egileak maitasunez sortua eta zaindua den mundua, bekatuaren morrontzapean jarria izana, egia, baina, Gaiztoaren agintea hondaturik, Kristo gurutziltzatu eta berpiztuak askatua, Jainkoaren asmoaren arabera eraberritua izan dadin eta bere helburu beteak lor dezan»

<sup>8</sup> LG 30.

<sup>9</sup> Ikus LG 1.

<sup>10</sup> Ikus Jn 17,14-18.

Kristau-elkartea munduan sortu eta hazten da, eta mundu honetara bidalia izan da, Berri Onaren mezulari izateko, aztertu eta bere eginez gizaki guztien –batez ere pobre eta nahigabetuen- pozak eta itxaropenak, tristura eta larriak<sup>11</sup>.

Sekulartasuna, hau da, «sæculum» edo mundu honetan txertaturik bizitzaren kontzientziak eta esperientziak Elizako kide guztiei dagokien zerbait izan behar du, eta ez laikoei bakarrik dagokiena. Hori adierazten du Vatikanoko II.ak zera esaten duenean: erlijoso-bizitzako bidea hartzen dutenek beraiek ere «testigantza bikaina eta apartekoa ematen dutela, hau da, ez dagoela mundu hau eraberritu eta Jainkoari eskaintzerik, zoriontasunen espirituaz izan ezik»<sup>12</sup>. Era berean, gizakien artetik hartu eta, nolabait, bereiz Jainko-herriaren erdian jarriak izan diren apaizek ere ez dituzte beren buruak herri horrengandik bereizitzat hartu behar; beren garaiko gizon-emakumeekin senide gisa bizi behar dute; eta ez berauekin eta berauen bizitzako gorabeherekin zerikusirik ez balute bezala<sup>13</sup>.

### • *Eliza osoa, batasunaren eta itxaropenaren hazi*

**26.** Jainko-herri osoaren sekulartasunaren ikuspegi honetatik, herri honetako kide bakoitzak, Espirituaren eraginez, salbamenaren testigu eta egile izan behar du munduaren erdian. Eliza Jainkoaren Herri bezala bere ikuspegi osoan uler-tzeak, beraren alderdi sekularra sakonago eta osoago ulertzera eramaten gaitu. Hori ez da gauza abstraktu eta zehaztasunik gabea. Giza talde konkretuetan eta begiz ikus daitezkeenetan gauzatzen da, kristau-elkarteetan, alegia, lekuan lekuko Elizetan eta hauen guztien elkartasunetik sortu eta Jesukristoren Eliza bakarra eratzen duen Eliza unibertsalean. Eliza horiek eta berauetako kideak dira itxaropenaren arrazoibidea ematen dutenak<sup>14</sup> eta, oraingo egoera konkretuan, kristau-mezua beren bizitzaz gaurkotzen dutenak.

Jainkoaren Herri osoa da –berau osatzen duten kide guztien aniztasunean, alegia–, mundu osoan eta bereziki gure herriaren erdian, batasunaren eta itxaropenaren hazi eta kimu berri izaera deitua dagoena; Kristoren tresna eta zerbitzari izan behar du salbamenerako<sup>15</sup>, munduarentzat argi eta lurrarentzat gatz izan dadin gaur eta hemen<sup>16</sup>. Historian zehar erromes denez, beharrezkoa du etengabe bihozberritzen eta biziberritzen aritzea. Zabalik egon behar du eta elkarriketa-jarrera izan behar du, gure munduak bizi dituen egoeren bidez Jainkoak egiten dizkigun deiak entzun ahal izateko.

Era honetan, Eliza une bakoitzean eta leku bakoitzean giza historian sarturik egotea esan nahi duen sekulartasuna, gure mundu honetan Jainkoak ari duen eraldatze-ekintzaren ezaugarri eta eragile izateko duen bokaziotik sortzen da. Elizek historian eta bizitzan aurkitu eta gauzatu behar dute Jainkoaren bo-

---

<sup>11</sup> Ikus GS 1.

<sup>12</sup> LG 31.

<sup>13</sup> Ikus PO 3.

<sup>14</sup> Ikus 1 Pe 3,15.

<sup>15</sup> Ikus LG 1 eta 19.

<sup>16</sup> Ikus Mt 5,13-14.

rondatea. Horregatik, prest egon behar dute, errealitateak egiten dien auzian Jainkoaren nahia bilatzeko.

## **Elizaren sekulartasuna, bere zereginaren zerbitzuan**

**27.** Elizaren sekulartasuna, hau da, elkarrizketa-jarreran mundura zabalik egotea, Jesusen Espirituari zor dion leialtasunaren ezaugarri eta berme edo garantia da, ebanjelizatze-eginkizunari eta Jainko Aitaren salbamen-proiektuari zor dion leialtasunaren ezaugarri eta berme. Munduarentzat itxirik edota axolarik eta zerikusirik gabe legokeen Elizak sekta gisako jokabideak han ditzake oso erraz, edota espiritualkerian eta klerikalismoan eror daiteke.

Vatikanoko II. Kontzilioak ez du Eliza munduagandik bereizirik ikusten, gizakien eta hernien bizitzan sartua baizik, eta giza historian barrena erromes. Eliza ez dago pertsonen arazo eta kezketatik urrutiratua dagoen elkarte gisa ulertzerik, edota bera bizi deneko giza taldearen zoriarekin solidaritzarik gabeko gisa. Gure Elizek aldarrikatu eta begibistako egiten ahalegintzen diren Jainkoaren Erreinua ez daiteke gure gizarteak lortu nahi duen giza asmoekin –zuzenbide eta senidearte gehiago lortzeko giza asmoekin, alegia– zerikusirik gabea izan. Elizaren izaera eta ekintza guztiek zerikusi positiboa, osasun-emailea eta santutzailea dute denborarekin eta sekulartasunarekin.

## **Eliza munduarentzat, elkartasunezko Eliza**

**28.** Elizaren laiko edo sekular izatea elkartasunezko eklesiologiaren ikuspegitik ulertu behar da; ikuspegi honek bataiatu guztien oinarrizko berdintasuna azpimarratzen du; baita Jainkoari sagaratuak egotea eta Jainkoaren salbamen-asmoan lankide izatea ere<sup>17</sup>. Hierarkiaren bakarririk oinarritutako Elizaren ikuspegiak erabat egoera anonimoan eta pasibitatean utziko luke Jainkoherriaren gehiengoa; eta, ondorioz, bereizi eta urrutiratu egingo luke Eliza mundutik. Alderantziz, bestelako irudia emango du gure munduaren erdian, Hirutasunaren maitasun-misterioaren irudi izan eta hala azaldu nahi duen Elizak: «Jainkoarekin bat egina dagoena eta gizadi osoaren batasunaren seinale eta bide dela»<sup>18</sup> adieraziko baitu, bere bokaziorik sakonenari erantzunez.

## **Laikoak**

**29.** Bere sekular izaeraz ohartua dagoen Elizaren ikuspegitik ulertzen da ondoen laikoaren nortasun eta eginkizun berezia. Elizaren alderdi sekularraz ohar-tzeak, Jainko-herriaren zati diren laikoek dituzten norberatasun eta erantzukizun bereziak aitortzera eta, bere neurri egokian, balioztatzera eramaten gaitu zuzenean. Horrek ez du esan nahi, Eliza bere osoan laikoak bakarrik direnik; Ordenaren sakramentua eta hortik sortutako eliz zerbitzariak ere, etengabe Jesukristoren buru-izatea eta bitartekotza gogoratu eta adierazten dutenak, Jainko-herniaren zati baitira. Orain azpimarratu nahi duguna, Elizan –bere osoan

---

<sup>17</sup> Ikus LG 4; AG 2.

<sup>18</sup> LG 1.



mundura bidalia izan den Elizan, alegia– laikoek duten esanahi berezia da: «Sekulartasuna bereziki laikoei dagokien izaera eta alderdia da (...); hauei dagokie, beren bokazio bereziaz, Jainkoaren nahiaren arabera mundu honetako arazoez arduratuz eta beroriek zuzenduz Jainkoaren Erreinua eraikitzea»<sup>19</sup>.

Inkulturapena eta Elizaren munduarekiko elkarrizketa, batez ere laikoan bidez egin behar da. Horregatik, Eliza mundu honen barruan jartzeaz kezkatu-rik zegoen Vatikanoko II.ak laikoan lekua eta zeregina azpimarratu zituen. Bataiatu guztien zeregina da eliz elkartasuna sendotzea; baina baita giza solidari-za sortu eta sendotzea ere, eta gizadi osora zabaltzea. Horrek esan nahi du, in-dartu egin behar direla ardurakidetzatza, eraman ona eta elkarrizketa elkarte ba-rruan; eta baita bataiatu bakoitzak munduko zereginetan dituen aukerak erres-petu osoz arakatzeko ere<sup>20</sup>.

Era honetan, eliz elkartasuna, berbera azken helburu bihurtu gabe, Eliza-ren zereginaren zerbitzura zuzentzen da. Beste era batera esateko, Elizak beha-rrezkoa du elkartasuna bere barruan, zuzeneko zerikusia duelako ebanjelizatze-lanerako. Eliz elkartasunean bizitzeak baldintzatu egiten du ebanjelizatze-zeregina, hor adierazten delako kristau-mezua argitsu edota lausoturik.

## **Mundu sekularraren autonomia**

**30.** Sekularrek mundu honetan duten ebanjelizatze-lan eta zeregin berezia aitortzean, lur honetako errealitateek berena duten sekulartasuna eta mundua-ren autonomia zuzena aitortzen ditugu aldi berean. Horrek ez du esan nahi, mundu hau bereizi egiten dugunik Jainkoagandik, edota Jainkoarekiko inolako loturarik gabe uzten dugunik. Esan nahi du, munduak badituela bere-bereak diren legeak eta baloreak<sup>21</sup>. Aurkitu eta erabili egin behar diren legeak. Argitu eta bete egin behar diren baloreak. Elizak aitortu eta balioztatu egiten du mun-du honetako gauzen autonomia zuzena. Gehiago oraindik, gauzak horrela uler-tuz gero, Jainkoak egin duen eta bere salbamen-asmoa eskaintzen dion mundu hau, Elizaren solaskide gertatzen da eta Espirituaren bitartekari<sup>22</sup>. Munduak berea duen laikotasun edo sekulartasun honek izakiek duten alderdi autonomoa adierazten du; baina bere indar hutsez lortu ezin duen salbamenaren beharra ere erakusten du.

Ohartzen gara errealitatea zalantzazkoa eta nola-halakoa dela; ezin gai-tezke baikortasun itsuan erori, Jainkoaren asmoen aurrean munduak dituen alderdi ezkorrak eta nahiezak ez ikusteko. Baina, aldi berean, ezin ditugu mun-du honetako errealitateak arinki gaitzetsi eta ikuspegi iluna izan munduari bu-ruz, kristau-fedearantzat arrisku eta mehatxu besterik ez balitz bezala. Mun-duari buruzko kristau-ikuspegi honek ondorio honetara eramango gaitu berez: Elizaren eta kristauen irizpide, konpromezu eta ekintzak sen onez arakatzera, gizartean nola aritu ulertzeko orduan.

---

<sup>19</sup> LG 31.

<sup>20</sup> Ikus GS 92.

<sup>21</sup> Ikus GS 36.

<sup>22</sup> Ikus GS 44.

## Tentaldiak eta gaizki ulertzeak

**31.** Munduarekiko elkarrizketarako jarrera baikorrak lagundu egingo digu Elizaren bizitzan aurkitzen dugun zenbait tentaldi gainditzen. Lehenengoa, eklesi-ozentrismoa da, Elizaren kezka eta ekintzaren erdian Eliza bera jartzea, alegia. Beti, baina batez ere kasu horietan, gogora ekarri beharrekoa da, Elizak ez duela bere burua aldarrikatzen, bere Jauna baizik eta Beronen agintzariak betiko bi-ziari buruz.

Tentaldi honek izan ditzake beste era finago eta ezkutuagokoak. Hori na- bari da, esate baterako, ardua gehiago jartzen dugunean geure talde eta elkar- teen antolakuntzan, aldunduei eta fededun ez direnei Ebanjelioa aldarrikatzean baino, eta bereziki pobre eta behartsuei aldarrikatzean baino, horiei eskainia izan baita batez ere Berri Ona.

Nor bakoitzak eta elkarrekin gaurko kulturaren eta beronen baloreen au- rrean elkarrizketarako jarrera irekia eta benetakoa erakutsiz bakanik gainditu ahal izango dugu salatzen ari garen tentaldian erortzeko arriskua.

Aurrekoaren antzekoa izan daiteke klerikalismoaren tentaldia. Uste izatea, alegia, Elizari dagokiola munduak bere arazoetan zer egin behar duen erabaki- tzea, guztientzat eta betiko balioa duen eta gauza guztien gainetik dagoen egia- ren jabe delakoan. Kontzilioak gonbite eta dei bizia egiten digu, izaerako gune askotatik sortzen diren oihuak entzutera, oihu horietan gorderik dagoen egia onartzeko. Zentzu honetan, Elizari berari gogoratzen dio, «zenbat aurreratu be- harra daukan oraindik ere etengabe heldutasun-bidean, munduarekiko bere harremanak hobetzeko»<sup>23</sup>.

Jainko-herriaren zeregina da «gure garaiotako hizkuntza desberdinak Es- piritu Santuaren laguntzaz aztertu, bereizi eta adieraztea, eta Jainkoaren hitza- ren argira epaitzea, agertua izan den Egia bere osoan jasoa izan dadin, hobeto ulertua eta era egokian adierazia»<sup>24</sup>. Gaur egungo kulturaren baloreak: askata- suna, alegia, gizarte-bizitzan esku hartzea edota gero eta kontzientzia argiagotz nabaria den emakumearen duintasuna eta lekua, ezin ditzake Elizak ahaztu eta baztertu.

Munduan aurkitzen diren giza baloreen aitormenak –Jainkoagandik eta munduan ari den Espirituaren ekintzatik sortuak diren baloreen aitormen zin- tzoak– ez du eragozpen izan behar, bizitzako maila guztietan nabaritzen diren akats, oker eta gaiztakeriak fedearen begiz ikusteko, giza ahuleziaren, Jainkoaz ahaztearen eta gizakien harrokeriaren ondorio baitira<sup>25</sup>.

Azkenik, ez dago isilean uzterik, laikotasuna eta laizismoa, sekulartasuna eta sekularismoa nahasteko arriskua ere. Nahasketa hori dela medio, behin baino gehiagotan, zenbait pertsonak eta taldek Eliza kultu edo elizkizun-gunera eta gune pribatura baztertu izan du; eta mundu honetako errealitateen Jainkoa-

---

<sup>23</sup> GS 43.

<sup>24</sup> GS 44.

<sup>25</sup> Ikus Erm 1. eta 2. atalak.

rekiko harremanak eta Jainkoarenganako fedetik sortzen den ordena etikoarekiko harremanak ere ukatu izan ditu. Transzendentziaren ikuspuntu hau gaitzeak erraz eraman dezake, Eliza mundu honetako arazoetan sartzen denean berari ez dagokion lekuan ari dela ulertzera, bai doktrinazko irakaspena ematen duenean, bai sekularrak ustez kristau-fedearen argira ekintzan sartzen direnean.

### «Arima gorputzean bezala»

**32.** Historia honetan erromes den Eliza zain dago noiz agertuko den bere beatean Jainkoaren dohainezko salbamena<sup>26</sup>. Gizakien bizitzako baldintza berdinak bizi ditu berak ere, eta bere buruarekin eta Jainkoarekin adiskidetutako gizadiaren aurrerapen izaten saiatzen da baldintza horien erdian. Zeruko hiria amesten duela, zeru berrien eta lur berriaren etorrera bideratuko duten ekintza zuzenetan sartuta bizi nahi du, munduarekiko bere konpromezua alde batera utzi gabe. Eliza munduaren erdian aritzeak, munduari Jainkoaren Erreinu izatera iristeko gelditzen zaion aldea gogoratzen du. Eta, aldi berean, bere begirada eskatologikoak, oraintxedanik mundu honetan nabari diren erabateko salbamenaren arrastoak aurkitu eta arakatzera eragiten dio<sup>27</sup>.

Horrela, Elizako kideak mundutar izatearen eta, aldi berean, bestelako izatearen artean bizi dira, solidaritza eta kontrastearen artean, konpromezu eta itxaropenaren artean: «Arima gorputzean dena, hori izan behar dute kristauek munduan»<sup>28</sup>.

---

<sup>26</sup> Ikus Erm 8,19-22.

<sup>27</sup> Ikus LG 48; GS 39.

<sup>28</sup> *Diognetori gutuna* 6; LG 38. zenb.an aipatua.

### III.- LAIKOAREN IZATEA ETA EGITEKOA

**33.** Kristau-elkartearen muina eta, elkartean, gizaseme eta emakume laikoen izatea zein den eta hauek zertarako deia hartu duten ongien jasotzen duen testu biblikoa, lehenengo kristau-elkartearen bizitza aipatzen duen hau da: «Zintzo irauten zuten apostoluen erakutsietan eta elkarte-bizitzan, ogia zatitzean eta otoitzean. (...) Sinestedun guztiak batasunean bizi ziren; eta zeukaten guztia guztientzat zuten; ondasunak eta gauzak saldu egiten zituzten, eta haiekin hartutakoa denen artean zabaltzen zuten, bakoitzaren beharrari zegokionez. (...) Jainkoa goresten zuten eta herriak begi onez ikusten zituen, eta egunero Jaunak haien artera biltzen zituen salbatzen ari zirenak»<sup>29</sup>.

Sinestedunaren ezaugarri nagusiak zein diren, laiko-bokazioaren sortze eta sendotzea nondik datozen azaltzen da laburbilduma horretan: Jainkoa dela deia egiten duena, apostoluen erakutsiei arreta jarri behar zaiela, sinesmena elkartean bizi behar dela, testigantza indarra, behartsuenekiko zerbitzu-espirtua eta solidaritza behar direla, etengabe ikasi beharra dagoela, kristauak bere bizitzan otoitz egin behar duela eta fedea ospatu.

Itun Berriko ispilu honetan begiratu eta ikusi beharra dute kristau-elkarteek zer den beren fedea, espirtu-bizitza eta Ebanjelioaren arabera eginiko aukerak landu eta helduaraztea, baita munduaren aurrean beren testigantza sendoa egitea ere, munduarekin nahasi gabe<sup>30</sup>.

#### **Jesusen jarraitzaile**

- ***Nor bakoitzari egindako deia***

**34.** Jesusen jarraitzaile izatea da kristau laikoaren lehenbiziko ezaugarria. Berak egiten duen deiari erantzunez izan ezik, ez dago Jesus ezagutzerik. Horra hor, beraz, kristau-bokazio ororen iturria eta laiko-bokazioaren iturria. Jesusek deituak dira. Itun Zaharrean azaltzen diren dei guztietan bezala, Ebanjelioko testigantzetan ere deia da aurrena; Jesusek dei egiten die honi eta hari, Berari jarrai diezaioten. Jainkoak gaitu lehenbizi maitatu<sup>31</sup>, baita aukeratu ere gutako bakoitza Kristorengan<sup>32</sup>.

Jesus bera gurtu, baldintzarik gabe Berari atxikirik bizi eta Beraren helburua leial onartzea eskatzen du Jesusen dei horrek. Jainkoaren Erreinuaren zerbitzura jartzea eta Erreinu horretatik urrutiratzen duen oro edota Erreina bezain baliotsu azaldu nahi duen oro bazterrera uztea da Jesusi jarraitzea. Jesusi jarraitzen diona ziur dago, berebiziko altxorra aurkitu duela<sup>33</sup>.

---

<sup>29</sup> Ap Eg 2,42-47.

<sup>30</sup> Ikus Jn 17,9-18.

<sup>31</sup> Ikus 1 Jn 4,19.

<sup>32</sup> Ikus Ef 1, 4-6.

<sup>33</sup> Ikus Mt 13,44-46.

- ***Seme-alabatzako esperientzia eta Aitaren esaneko izatea***

**35.** Bere baitatik atera eta Jainkoaren nahia betetzea, Erreinuaren zerbitzurako beti prest egotea, besteekiko, batez ere behartsuenekiko, elkartasun eta solidaritzan bizitzea izan ziren Jesusen nortasunaren ezaugarriak. Horiak izan behar dute sinesmendun gizaseme nahiz emakume ororen ezaugarriak ere<sup>34</sup>.

Jainkoaren Seme zela barne-muinean nabaritu eta Aitaren nahia betetzeko bere burua eman zuela kontuan izanez uler daiteke, nolakoa izan zen Jesusen bizialdia. Jainkoarekin zuen harremanak eguneroko bizitzan sakontzera eramaten zuen, eta mundura irekia bizitzeak Aitarekin elkarrizketa eta lotura handiagoa izatera bultzatzen. Horrela, bat egindako bizitza eraman zuen Jesusek.

Jesusek bere hitz eta egiteetan agertu zuen, behartsuak, gaixoak, baztertuak eta bekatariak dituela Jainkoak maiteen. Jainkoaren ikuspegitik begiratu argitzen zuen bizitza, aldien ezaugarriei igarritik eta itzaropena edota askakuntza nondik zetozkeen arretaz zainduz<sup>35</sup>. Horrela, Espirituaren argitan bizi izan zuen giza bizitza bere alderdi eta alor guztietan: osasunean eta gaixoardian, lanean eta etxean, sinagogan eta itsasoan, kalean eta landan<sup>36</sup>.

- ***«On egiten igaro zen»***

**36.** Maitasunean Jainkoaren esaneko izanez eta Jainkoaren helburuen zerbitzuan bizi izan zuen Jesusek bere bizitza, hots, gizadi osoaren aldeko eta, bereziki, gizadiko ahulen eta behartsuenen aldeko diren helburuen zerbitzura. Horregatik, oso sentibera zen eta konprometitu justizia eta senidetasunarekiko. Hori dela eta, garai hartan guztiz harrigarri ziren jokaerak hartu ohi zituen Jesusek, askatasun osoz: ageriko bekatariekin jaten zuen<sup>37</sup>, legendunak ukitzen<sup>38</sup>, larunbatez ere gaixoak sendatzen<sup>39</sup>. Jokaera hori are nabarmenagoa izan zen emakumeekiko: onartu egiten zituen bere lagunen artean<sup>40</sup>, emakume samariarrarekin mintzatzatu egin zen<sup>41</sup>, ezkon-nahaslea askatu<sup>42</sup> eta, emakume kanaan-darraren fede-aitormena entzunik, amore eman zuen<sup>43</sup> Jesusek, beraz, bere baitatik atera eta besteen zerbitzura jarritik eraman zuen bizitza, eta behartsuaren zoriaz axolatu zen<sup>44</sup>.

---

<sup>34</sup> Ikus GS 22 y 32.

<sup>35</sup> Ikus Mt 16,3-4.

<sup>36</sup> Ikus Mk 1,16-45.

<sup>37</sup> Ikus Mt 9,10; Lc 15,2.

<sup>38</sup> Ikus Mk 1,41.

<sup>39</sup> Ikus Mk 3,1-6; Lc 13,10-17.

<sup>40</sup> Ikus Lk 8,2-3.

<sup>41</sup> Ikus Jn 4,7-26.

<sup>42</sup> Ikus Jn 8,3-11.

<sup>43</sup> Ikus Mt 15,21-28.

<sup>44</sup> Ikus Lk 10,25-37.

Hitz batean, Jesus, «Espiritu Santuaren indarrez gantzutua, on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zen, Jainkoa Harekin baitzegoen»<sup>45</sup>. Espirituaren eraginari erantzuten ziolako, gizaki orok izan ohi dituen tentaldirik sakonen eta jakinenak gainditu zituen Jesusek<sup>46</sup>, gurutzean bukatzeraino.

## Jesusi jarraitzea eta bidalketa

**37.** Jesusi jarraitzeko deiak bi xede edo helburu ditu: Berarekin bizitzea eta ebanjelizatzea bidalia izatea<sup>47</sup>. Jesusekin berarekin eta Jesusen helburuekin bat egitea da kristau izatearen oinarri nagusietako bat<sup>48</sup>. Laiko izatearen eta laikoari dagokionez bizitzearen iturria, beraz, Jesusekin bat eginik egotea da. Kristau-elkarteko kide oro da Jesusen sentimendu eta jarrera berak izatera deitua.<sup>49</sup> Izan ere, Jesusi jarraitzea Berarekin bat egitea da, Jesusen pertsonari atxikitzea eta Berari gu eraberritzen uztea, Jainkoarekin seme-alabei dagozkien harremanak izan ditzagun eta lagunurkoa maita eta zerbitza dezagun.

Jesusekin bat eginik egotea eta Berak bidaliak izatea ezin dira bata bestetik bereizi. Kristau izatearen beste oinarri nagusia da hori. Jesusek dei egiten duen bakoitzean, egiteko jakinen bat ematen du<sup>50</sup>. Nabarmena da nola bidaltzen duen Jesusek askatzera eta sendatzera; maiz aipatu ohi dira ebanjelioetan «sendatu», «deabruak bota», «osasuna eman», eta horrelako aginduak. Kristok berak bidaltzen du bere jarraitzaile oro sinesmen sendatzailea hots egin eta bizitzera. Hau da, sinesmendun gizon eta emakumeak bidali egiten ditu Jesusek Jainkoaren Erreinua egia bihur dadin lan egitera.

Bataiatua izateagatik, kristaua Kristorengan txertatua gertatzen da, Beraren Espirituak arnasberritua, eta eskubide osoz Jainkoaren Herriko kide egina. Eta, aldi berean, Jainkoaren Erreinua hitzez eta egitez munduan hots egitera bidalia da. Horregatik, Jainkoaren Herriko kide diren guztiek eta bakoitzak dute apostolutzarako bokazioa, deia<sup>51</sup>. Beraz, laiko fededun oro da Kristo munduan egotearen modua. Jesusen jarraitzaileen bidez, munduan eta gure artean egia gertatzen da Jainkoaren salbamena.

## Kristoren hiru ministeritzetan partaide

- *Kristo Apaiz, Profeta eta Errege*

**38.** Laikoak «Bataioaz Kristorengan txertatuak dauden kristauak dira; Jainkoaren Herria osatzen duten eta Kristo Apaiz, Profeta eta Erregearen eginkizunetan parte hartzen duten kristauak. Beren izatearen arabera, kristau-herri

---

<sup>45</sup> Ap Eg 10,38.

<sup>46</sup> Ikus Mt 4,1-11.

<sup>47</sup> Ikus Mk 3,14.

<sup>48</sup> Ikus Lk 9,57-62; 22,28; Jn 15,5.

<sup>49</sup> Ikus Flp 2,5; 1 Pe 1,15-16; 1 Jn 2,6.

<sup>50</sup> Ikus Mk 3,14-15; Lc 9,1-2; 10,2-12; Mt 10,1; Jn 20,21-23.

<sup>51</sup> Ikus AA 1.

osoaren egitekoa betetzen dute laikoek, bai Elizan, bai munduan»<sup>52</sup>, hala dio Vatikanoko II. Kontzilioak, Elizaren tradizioa eta iritzia bilduz.

Vatikanoko II. Kontzilioaren irakaspen honek argi egiten du, kristau laikoaren izatea eta egitekoa zein den ikusteko. Hiru ministeritza edo zerbitzu horiek ez dabilta bakoitza bere aldetik, bata besteari oso lotuak baizik. Kristoren apaiz-izatea ez da kultu edo elizkizun hutsean gelditzen; profeta-lana ere bete behar du. Eta errege izatea, berriz, bere bizia besteen zerbitzurako oso-osorik emanez gertatzen da.

Bataioaz Kristorengan txertatua eta Elizaren kide gertatzen denak Kristoren profeta-, apaiz eta errege-izatea hartzen du. Horregatik, Vatikanoko II. Kontzilioak hau dio: «Jainkoaren Herria osatzen dutenek, Kristorengan birsortuak direnez, duintasun bera dute, seme-alaba izatearen grazia bera, guztiz onak izateko bokazio bera, salbamen bera, sinesmen bera, etenik gabeko maitasun bera»<sup>53</sup>. Kontzilioaren irakaspen hau –sinestudun bakoitzak, Kristoren gorpuzkide eta Jainkoaren Herriko kide denez, Kristoren ministeritza hirukoitz horretan parte duela dioen irakaspena, alegia– erronka da lekuko gure Elizentzat, partehartze hori egia bihurtu behar baitute eguneroko ihardunean.

#### • ***Aldarrikapena eta testigantza***

**39.** Berri Ona hots egiteko Jesusen eginkizun bera jarraitzera deitua den Jainkoaren Herria da Eliza osoa. Eliza osatzen dugun guztiok, nor bere izatearen arabera, deituak gara, Jesusen agindu hori –Beraren hitza zabaldu eta Beraren testigantza egiteko agindua– betetzera<sup>54</sup>. Hori da profeta-eginkizuna betetzea. Hori egiteko, nabari egin behar du sinesmendunak Jainkoaren Hitzak hartua eta liluratua dagoela.

Hori dela eta, profeta-egitekoa duenez, sinesmendun gizon nahiz emakumeak bereganatu eta bete ditzake fedea hots egin eta hesitzeko ardura eta eginkizuna, eta gizartean nahiz Elizan bertan dauden injustiziak salatzeke ardura. Itxaropenaren testigu izango dira horrela.

Eliz Irakaskintzak du Jainkoaren Hitza aldi oro benetan interpretatzeko ardura<sup>55</sup>. Baina sinesmendun guztiek ere saiatu behar dute, beren artzainekin bat eginik, Jainkoak agertu duenaren edukia zein den barnetik jakiten, une historiko eta kultural bakoitzean nola ulertu aztertzen eta gizartearen nahiz Elizaren bizitzako egoera bakoitzean nola bete ikusten<sup>56</sup>.

---

<sup>52</sup> LG 31.

<sup>53</sup> LG 32.

<sup>54</sup> Ikus LG 12 eta 31.

<sup>55</sup> Ikus DV 10.

<sup>56</sup> Ikus GS 91.

- ***Laikoen apaizgoa***

**40.** Kristoren apaiz-eginkizuna zein den ulertzeko –eta laiko kristauek ere badeute parte Kristoren apaiz-izate horretan–, Hark hasiera eman zion Itun Berriko apaizgoaren ikuspegitik dago argitu beharra. Jesusen bizitza osoa da Jainkoari eginiko eskaintza bizia<sup>57</sup>. Horregatik da apaiz Jesus, Itun Berriko apaiza. Gizon egina, hila eta biztua den Jesukristoren bidez, bataiatu orok du Jainkoarenganako sarbidea, apaiz-herri den Elizan Jesusen apaiz-izatean parte hartuz. Kristau-herriaren apaizgo hau ez da irudi hutsa, sakramentu-bizitzan eta, bereziki, Eukaristian egiaz betetzen den apaizgoa baizik<sup>58</sup>. Apaiz izate han bizitza osoan bete behar da, testigantza eginez, bertuteak eta balore ebanjelikoak biziz.

Une bakoitzeko ingurune sozio-kultural eta historikoan beren bizitza eskainiz betetzen dute sekularrek beren apaiz izatea: «Egintza eta otoitz guztiak, apostolutza-ihardunak, ezkon-eta famili bizitza, eguneroko lanak, espirituaren eta gorputzaren atsedena, Espirituaren arabera eginez gero, bizitzak dituen nekeak berak ere pazientziaz eramanez gero, Jesukristoren bidez Jainkoari eginiko opari espiritual eta atseginak dira denak, Jainko Aitari jaiera osoz Eukaristi ospaketan eskainiak, Jaunaren gorputzaren eskaintzarekin batera»<sup>59</sup>.

Ebanjelizatze-lanak berekin dituen ekintzetan ihardunez eta norberaren nahiz gizartearen egoera eraldatzeko konpromezua betez bizitzen dute laikoek beren apaiz izatea. Bizitza osoa da, beraz, etengabeko eskaintza eta emaitza; horregatik, kristau bakoitzaren eta Eliza osoaren ebanjelizatze-lanaren ardatz, janari eta gailur gertatzen da Eukaristia<sup>60</sup>. Nork bere bizia ematea Eukaristian burutzen da, eta, era berean, bizitzako alor guztietara eraman eta zabaldu behar du sinesmendunak Eukaristia, mundu honetako aginte-indar guztien aurrean barne-askatasuna erakutsiz.

- ***Kristo Jaun bakarra dela aitortzea***

**41.** Aitaren nahia erabat onarturik, Erreinuaren helburua egia bihurtzearen zerbitzura beti prest biziz bete zuen Kristok bere Errege-izatea. Laikoa, orobat, Kristoren eta senideen zerbitzurako prest jartzen da, pazientzia osoz eta bekatuaren gain lortutako askatasuna bizi nahirik.

Jaun bakarra Kristo dela hots egitera deitua da, bataiatua izateagatik, sinesmendun oro. Horrexegatik, gaitzaren eta injustiziaren aurka borrokatu behar du, bere baitan duen bekatua menperatu, baita besteengan edota gizarte-egituretan ikusten duen bekatua ere, eta, bereziki ahulen eta behartsuenengan dagoen Jauna zerbitzatu<sup>61</sup>. Errege izate hau nork bere burua, gainerakoak eta mundu osoa askatze-lanean ihardunez betetzen da. Jesukristok hasi zuen askakuntza-lan hori bere biztueraz, gizakiaren neurriko izango den gizarte zuzenagoa sor dadin.

---

<sup>57</sup> Ikus Heb 5-10. atalak.

<sup>58</sup> Ikus LG 10.

<sup>59</sup> LG 34.

<sup>60</sup> Ikus SC 10.

<sup>61</sup> Ikus Mt 25,31-46.



Giza harreman eta alorretan zuzentasun-zentzua, bake-gogoa eta solidari-tza eta senidetasun-sentimenduak bultzatuz hartzen dute sekularrek parte Kris-toren errege-eginkizunean<sup>62</sup>. Historiaren eta bizitzaren Jaun bakarra Jesus dela aitortzen dute bere egintza, zeinu eta hitzez.

Eginkizun hau baztertuz nahiz ahaztuz gero, elkarteek eta elkartekideek bazterrera utziko lukete ebanjelizatzearen alderdi garrantzitsuenetako bat: mundua eraldatzeko konpromezua, alegia, Jainkoaren Erreinurantz jo dezan.

## **Jarraipenaren espiritubidea**

### • ***Laikoaren espiritubidea***

**42.** Jesusen jarraitzaile dira sekularrak. Horregatik, beraien espiritubideak ere, bataiatu orok bizi behar duen jarraipen horretan oinarritu behar du. Jesusi jarraitzearen dinamika bataiatu batzuentzat bakarrik balitz, baliogabetua gertatuko litzateke Bataioa bera. Hala ere, esan daiteke, laikoak baduela bere espiri-tubide berezia, presbitero edo apaizena ez bezalakoa edota era bateko nahiz bes-teko «erlijioso/a-bizitza» aukeratu dutenena ez bezalakoa.

Vatikanoko II. Kontzilioak dioenez, «edozein egoera nahiz izaerako kristau oro da kristau-bizitza betera eta maitasun osora deitua». Laiko izateak berekin dituen arriskuak kontuan izanik dira sekularrak Jesusi jarraitzera eta Ebanjeli-oaren eskakizunak onartzera deituak. Laiko izanez dute kristau-bizitzaren bete-a lortu eta maitasun osoa iritsi behar, bataiatu ororen bokazioaren arabera<sup>63</sup>.

### • ***Hitzaren eta bizitzaren entzule***

**43.** Jainko Aita ahaztuz ezin da Jesus ulertu, Jainko Aita izan baitzen Jesusen mezu eta bizitza osoaren abiapuntu bakarra eta azken helburua. Hala berean, ezin da bizitza kristaurik izan, seme-alaba izateari dagozkion erlazioak izan gabe Jainkoarekin, edozein egoeratan izan ere. Jainkoaren Hitzean eta eguneroko bizitzako gertaeretan agertzen den Jainko-borondatea arretaz entzun eta leial obeditzen diona da sinesmenduna. Jesusen Jainkoari begira egotea da, beraz, kristauki bizitzeko abiapuntua, baita kristau laikoarena ere.

Sakramentuak eta, gehienbat, Eukaristia ospatzean azaltzen da eta berri-tzen nagusiki Jainkoaren Hitza onartzeko eta Berari obeditzeko jarrera. Euka-ristian janari-edari bihurtzen da Hitza, geureganatzeko eta besteei hots egin eta eskaintzeko emana baita.

### • ***Ebanjelioari erro-errotik jarraitzea***

**44.** Kristau izatea arinki edo «light» eraman daitekeeneko ustearen aurrean esan beharra dago, Jesusi jarraitzeak erro-errotiko jarrera, bene-benetako ja-

---

<sup>62</sup> Ikus LG 36.

<sup>63</sup> LG 40.

rrera, eskatzen duela. Berari jarraitzeko erabat prest egotea eskatzen du Jesusen dei larriak. Ez da beste edozein dei bezalakoa, bizitzearen azken arrazoa ematen dion deia baizik. Sinesmendun orok behar du, beraz, benetan hartu Ebanjelioa eta zintzo izan erantzutean.

Jarraipenaren espiritubideak, gainera, behartsuekiko solidaritza eraginkorra ere eskatzen du, horientzat baita bereziki on Jesusen mezua. Hori kontuan izanez gero, barnekoikeria edo espiritualkeriaren tentazioak gaindi daitezke; halako jarrerak ezin dute ziurtatu, egiazkoa dela Jesus Jaunaren dei larriari bakoitzak emandako erantzuna. Behartsuen alde jartzeak pobreziaren eta pobrezia dakarten arrazoen kontra borroka egitea dakar. Lehentxeago edo geroxeago, gatazka sortzen du. Horrela agertzen da Jesusi jarraitzean oso kontuan izan behar dela gurutzeta. Jesusi jarraitzeko, «bizitza konplikatu» beharra dago eta gaitzaren eta injustiziaren aurkako borrokan konprometitu beharra.

- **Zoriontasunen espiritua**

**45.** Jesusi jarraitzeko zoriontasunen espirituaz kutsatu beharra dago eta, horien argitan, etengabe ikusi beharra, gure gizartean nagusi diren baloreei amore ematen diegun ala ez. Norgehiagoka, erasoka, itxurak eginez edota kontsumokeria hutsean dabilen mundu honetan, balore ebanjelikoak bizitzera deituak dira kristauak: errukitsu izatera, barkatzera, zuzen eta azpikeriarik gabekoak izatera, estualdietan nahiz erasoaldietan eraman oneko izatera.

Bat egin behar ditu mistika eta konpromezua, kontenplazioa eta egintza, Jesusi jarraitu nahi dionak. Bizituarengan sinesmena izanez gero, edozein egoeratan Jainko biziemailea aukeratu beharra dugu, hala egin baitzuen Jaunak, bere burua gurutzeraino eman ez bizi ugari ematera etorri zen gure Jaunak<sup>64</sup>. Historian ari den Jainkoari begiratu eta otoitz eginez elikatzen da sinesmen hori, gero eta handiago egiten eta dohainik ematen.

Etika eta konpromezu ekintzaile soila baino gehiago da Jesusi jarraitzea. Jainkoak erregalatzen digun Erreinua apal onartzearen pozkarioa nabari du sinesmendunak bere bizitzan. Horrela, zigorkatuak eta gurutziltzatuak dauden talde eta pertsonentzako justizia lortzeko borroka itxaropentsura garamatza sinesmenak; bai baitu sinesmenak politiko-alderdi hori ere.

- **Berri Onaren zabaltzaile**

**46.** Hori guztia kontuan izanik, kristauaren espiritubideak adierazi eta ikusarazi egin behar dio munduari Jainkoaren maitasuna: Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundua galtzera bidali, baizik eta Haren bitartez mundua salba dadin»<sup>65</sup>. Jainkoaren maitasunak munduan uzten dituen oinatzak, arrastoak, ikusi eta Jainkoarengana irekia dagoen espiritubide laikala, ezin da mehatxuko eta dena kondentzen ibili, gizadiarentzat ona den Berria zabaltzen baizik.

---

<sup>64</sup> Ikus Jn 10,10.

<sup>65</sup> Jn 3,17.

## Mundura bidaliak

- ***Elkar «kutsatuz» ebanjelizatzea***

**47.** Laikoak mundura bidaliak izan diren Elizako kideak dira, Espirituak arnasberriturik salbamenaren ezaugarri eginkor izatera bidaliak; Jainkoaren nahia aurkitu eta entzutera deituak daude, eta bizitzako egoera guztietan beren fedearen testigantza ematera deituak. Nolabait esateko, elkarri kutsatuz ebanjelizatu dezakete eta behar dute<sup>66</sup>. Laikoen bidez, fedea testigantza bihurtzen da, eta honek galdera sortarazten du fedeari buruz.

Ebanjelizatze-lanari ekin beharraz gero eta ohartuago daude gure Elizak, eta, uneotan, hain zuzen, fededun, talde eta elkarte bakoitzak bizitzako testigantza alderdi sortzailea gaurkotu behar du, kristauaren jatorrizko zeregina delako. Ebanjelizatzearen lehen pausoa ez dira hitzak eta doktrina, Ebanjelioarekin lotura estuan dagoen bizitza adierazten duten jokabideak eta ekintzak baid<sup>67</sup>.

- ***Munduko bizitzan txertatzea***

**48.** Laikoaren ebanjelizatze-ekintza alor berezia, nahiz eta bakarra ez izan, munduko bizitzako alor ezberdinak dira: «politika, arazo sozial eta ekonomiaren alor zabal eta nahasia; baita kultura, zientzi eta arte, nazioarteko bizitza eta komunikabideen ihardunbideak ere; eta berdin ebanjelizaziora zabalik dauden beste alorrak: maitasuna, familia, haur eta gazteen heziera, lanbide-arazoak eta sufrimena»<sup>68</sup>.

Bizitzako alderdi hauetan guztietan sarturik egon behar dute gure Elizetako laikoek. Sekularren apostolutza «Elizaren salbamen-zereginetan bertan parte hartzea da»<sup>69</sup>. Berauei dagokie alor horietara Ebanjelioa eramatea, guztietara eraman ere. Baina ez da garrantzi gutxiagoko kontua, hauek berak izatea kristau-elkarteetara eta lekuko beren Elizara jendearen amets, poz, itxaropen eta kezka eramango dituztenak. Joan-etorrikoa den bide hau da kristau laikoen bizitzaren ezaugarrietako bat. Azken batean, munduan kristau-erantzukizunez bizitzea esan nahi du horrek, eta hortik Elizaren bizitza aberastea.

Ezinezkoa da kristau guztiak aipatutako alor horietan guztietan sarturik egotea; are gutxiago ahal izango dute, aldi berean, kristau-elkarte barruko lanean aritzea; horregatik, konpromezu jakin bat hartu beharko dute bereziki. Eskuarki, azterketa baten ondorio izan beharko du erabaki horrek, hau da, bokazio-ikuspegitik egindako planteamendua. Nor bere gustuko lanbide eta joeren gainetik, bataiatu bakoitzak bere buruari galdetu beharko dio, bizitzako une eta egoera bakoitzean, zein den Jainkoaren nahia. Une honetan gure Elizek arretea gehiago jarri beharko lieke, gizartean sarturik aritzeko bokazioei; eta hauek argitu eta bideratzeko beharrezko diren laguntzak eman beharko lituzkete.

---

<sup>66</sup> Ikus LG 33; CFL 15.

<sup>67</sup> Ikus EN 21.

<sup>68</sup> EN 70.

<sup>69</sup> LG 33.

- ***Denen onaren zerbitzuan***

**49.** Ebanjelizatze-zereginak, jakina, Eliza eta fededunak jendartean egon eta aritzeari buruzko galdera jartzen du. «Eliza jendartean aritzea ebanjelizatze-alderdiaren eskakizun da»<sup>70</sup>; ahaztezina den alderdi sekularra adierazten du, eta era askotara gauza daiteke. Fededunek «ez daukate atzea ematerik `politikan' parte hartzeari; izan ere, denen ora era antolatuan eta erakunde bidez bideratzea helburu duen gisa askotako ekintza ekonomiko, sozial, legegintzako, administratibo eta kulturei atzea ematea izango litzateke»<sup>71</sup>. Era honetan ere betetzen dute Eliza munduan aritzeko beren zeregina, eta Ebanjelioaren espirituaren arabera gizartea eraldatzekoa.

Vatikano II.ak kristau guztiei dei egiten die, gizartearen ongiari zerbitzu egitera; beren ihardunbide eta jokaeraz erakutsi behar dute, «nola lotzen diren elkarrekin agintea eta askatasuna, nor bakoitzaren ekimenak eta gizarte osoarekiko lotura eta elkartasuna, beharrezko batasuna eta aniztasun sortzailea»<sup>72</sup>. Dena den, Elizaren eta fededunen jendartean aritze horretan, kontuan hartu behar dira bi argibide hauek: munduak berea duen autonomia zuzena errespetatzea eta gure gizarteko pobre eta behartsuen alde ihardutea bereziki.

- ***Nola egon munduan***

**50.** Mundu honetako arazo artean egote eta aritze hori argitu behar duten irizpide batzuk ekarri nahi ditugu orain gogora.

Irizpide hauetako bat fedearren eta bizitzaren artean beharrezko den lotura bilatu eta lortzea da. Ez da laikoari bakarrik dagokion arazoa, baina laikoari dagokionean baditu ezaugarri berezi batzuk. Gizonezko eta emakume laikoak mundu honetako arazoetan sarturik bizi dira, eta horrek gehitu egiten du berauengan, herri-bizitzan ihardutekoan, argi-emaile izan behar luketen Ebanjeliozko irizpideak bigarren maila batean uzteko arriskua. Horregatik, behin berriro gogoratu beharra dago, «oker jokatzeari dela aurrez aurre jartzea, alde batetik lanbide eta sozial eginkizunak, eta, bestetik, bizitza erlijiosoa»<sup>73</sup>, elkartzen ez diren bi bide bailiran.

Bestalde, fededunak ez du mundu honetako arazoetan besterik gabe eta nolana sarturik egon behar. Arazoetan sartze hori Ebanjelioaren arabera izan dadin, justiziaren eta berdintasunaren aldeko eta zalantzarik gabeko konpromezu eraldatzailearen eragina izan behar du<sup>74</sup>. Horrek pobre eta kaltetuen aldeko aukera egitea esan nahi du, hori baita «ebanjelizatzearen ezaugarriarik nagusia»<sup>75</sup>. Nola aldarrikatu, bestela, era sinesgarrian, Eliza batasun-sakramentu dena?<sup>76</sup>.

---

<sup>70</sup> CLIM 49.

<sup>71</sup> CFL 42.

<sup>72</sup> GS 75.

<sup>73</sup> GS 43.

<sup>74</sup> Ikus EN 18 eta 30-31.

<sup>75</sup> EFJE 100.

<sup>76</sup> Ikus LG 1.

Kristau-elkarteko kideak konpromezu pertsonaletan eta elkarturik bizitza sozial eta politikoa sarturik egoteak Elizaren beraren bizitza indarberritzea ere izan behar du helburu; horretarako munduarekin eta kulturarekin izandako elkarrizketa eta ekintza baikorren era askotako esperientziez baliatu beharko dute. Kristau-mezuak beharrezko duen herriko kulturaren txertatzea «ebanjelizatze ororen lege» bihurtzen da<sup>77</sup>, eta gainera Elizarentzat berarentzat aberasgarri eta eraberritzaile gertatzen.

## **Jainkoaren Herriko kide arduratsu eta ekile**

- ***Espirituak arnasberriturik, kide eskubidedunak***

**51.** Bataioak Jesusen jarraitzaileen elkarteko kide egiten gaitu, hau da, historian zehar erromes doan Jainko-herri edo Elizaren kide eskubidedunak. Elizaren altzoan hartzen dugu eta janaritzen, Jainkoaren Erreinuaren zerbitzuan inolako baldintzarik gabe iharduteko bokazioa, geure-geurea den bokazioa. Elkarte horretan gutako bakoitzak Espirituaren eragina hartzen du; Berak sortarazten ditu era askotako bokazio eta karismak; Berak ematen dizkio bataiatu bakoitzari gizonezko nahiz emakume bere dohainak, Berak nahi bezala<sup>78</sup>.

Jainkoaren Herriko kide bakoitzari Espirituak bere arrasa ematen dio, eta ezaugarri eta tresna bizi egiten Ebanjelioaren zerbitzura. Bataioaz, Espirituarengan, kristau bakoitzak Elizaren ebanjelizatze-zereginean parte hartzeko jatorrizko eskubidea hartzen du. Hor oinarriturik, ebanjelizatzen, Eliza eraikitzen eta gizadiari on egiten laguntzen du.

- ***Bokazio, karisma eta dohain desberdinak***

**52.** Espirituaren era askotako bokazio, karisma eta dohainak iturri agortezina dira mundua eta Eliza aberastu eta eraberritzeko<sup>79</sup>. Seme-alaben giza eta kristau-hezieraz arduratzen diren aita eta ama, besteei harrera ona egin eta entzuteko jarrera duen pertsona, elkarrizketarako bideak jarri eta istiluetan bitarteko izaten dakiena, bi alderdiak hurbilduz bere ahulezia aitortzen dakiena eta, horrela, lagunurkoarentzat sendabide gertatzen dena, bere soldatatik zati bat utzi eta denek lanerako baldintza duinak izan ditzaten borroka egiten duen langilea, arriskuak bere gain hartuz eta beste irabaziak utziz lanpostuak sortzen ahalegintzen den ugazaba edo enpresaria, egoera zailean egonik bere fedea bizi eta eskualdatzen duen gaixoa, horrelakoak, adibide batzuk aipatzearen, azken batean, Espirituagandik hartutako dohainak besteen zerbitzura eta Jainkoaren Erreinuaren zerbitzura jartzen ari dira.

Elizako arduradunei dagokie bereziki, beren maila desberdinetan, Espirituaren era askotako dohain eta karismak aztertu eta uztartzea elkartearen onerako eta ebanjelizatze-ekintzaren onerako izan daitezten. Espirituaren ahotsa itzali gabe<sup>80</sup>, arduradun hauei dagokie ahaleginak egitea, bataiatu bakoitza bere

---

<sup>77</sup> GS 44.

<sup>78</sup> Ikus 1 Kor 12,11; LG 12. zenb.an aipatua.

<sup>79</sup> Ikus 1 Kor 12,7.

<sup>80</sup> Ikus 1 Ts 5,19.

bokazioarekiko leial izan dadin eta Espirituaren nahiaren arabera izan behar duena izatera irits dadin: Jainkoaren alaba edota seme, alegia, osotasunean. Hori ongi arakatzea da gure Eliza eta elkarteetako gotzainok eta apaizok kontu handiz egin beharreko zereginetako bat.

- ***Laikoen ministeritzak***

**53.** Kristau-fededunen erantzukizuna, askotan, kristau-elkartea eraikitzeke egiten diren ageriko hainbat zerbitzu, iharduera eta zereginetan mamitzen da. Ageriko zerbitzu hauek berekin luzaroko erantzukizuna daramatenean eta Elizak eskuarki, liturgi ospakizun bat eginez ofizialki onartuak direnean, maila berezia hartzen dute eta «ministeritzak» deritzate. Elkarteari eta beronen zereginari egiten zaizkien zerbitzu bereziak dira.

Eliz ministeritzen artean aipamen berezia merezi dute hemen «laikoen ministeritzak». Lotura estuan daude hauek Ordena edo Apaizgintzako sakramentuaren bidez ematen diren eliz zerbitzuekin, Eliza zerbitzu baita bere osoan<sup>81</sup>. Lekuko Elizek beren beharren arabera antola ditzakete zerbitzu-erak ministerial hauek<sup>82</sup>. Zehazki, liturgi bizitza, fedea eskualdatu eta lantzea, pastoral egiturak eta karitate eta aurrerabide sozialerako zerbitzua, horra hor zenbait alor zuzenean laikoenak diren ministeritzen garapena eskatzen dutenak. Gure Elizetan entzuten dugu, era sortzailean eta ardurak elkarbanatuz jokatzera egiten zaigun deia, etengabe arnasberritzen eta biziberritzen gaituen Espirituarekiko leialtasunean.

- ***Ordenatik datorren ministeritza, batasun- eta elkartasun-ezaugarri***

**54.** Laikoen ministeritzak badirela eta horien garrantziaz konturatzeak, Ordenako sakramentutik datozen ministeritzen berezitasuna –batez ere, gotzaingo eta apaizgoarena– bere leku egokian jartzera eta behar bezala balioztatzerak eraman behar gaitu kristau-elkartek eta elkarte hauetako kideak; hauek, hain zuzen, beste ministeritza, zerbitzu eta karisma guztien batasun eta elkartasunari egindako zerbitzu dira. Beren zeregin bereziaz Kristoren izenean Eukaristia ospatu eta kristau-elkartearen buru direnez, gotzainei eta hauekin apaizei dagokie Jainko-herriaren batasun eta elkartasunaren begibistako oinarri eta ezaugarri izatea<sup>83</sup>.

---

<sup>81</sup> Azkeneko esaldi hau ez da ulertu behar, Jainkoaren Herriko kide bakoitzak bere zeregin ministeriala jasoko balu bezala; kristau-elkartea da munduarentzat salbamenaren sakramentu izateko zeregina betetzera deitua dagoena (ikus LG 1, 9 eta 48).

<sup>82</sup> EN Aholku-idazki apostolikoak ministeritza batzuk aipatzen zituen: «katekesia, otoitzaren eta kantuaren arduradunak, Jainkoaren Hitzaren zerbitzura edota senide behartsuei laguntza eskaintzera emanak dauden kristauak, elkarte txikietako buru direnak, apostolutzatumugimenduetako arduradunak edota beste zenbait arduradun (73. zenb.); eta garrantzi handia ematen zien hauei Elizaren txertaketa, bizitza eta hazkunderako.

<sup>83</sup> CFL idazkiak, bestalde, dio, «Elizaren beharrak edota onurak hori eskatzen duenean, artzainek –zuzenbide unibertsaleko arauen arabera– eman diezazkiekeela fededun laikoei zeregin batzuk, artzainen ministeritza bereziari lotuak egon arren, Ordena edo Apaizgintzako sakramentuaren maila eskatzen ez dutenak» (23. zenb).

Gure aldetik, laikoen ministeritzak geure ministeritzen osagarritzat eduki behar ditugu Ordenako sakramentua hartu dugunok; eta sakonago ikustera iritsi behar dugu, ministeritzak eta zerbitzuak Elizaren eta kristau-bokazio ooren berezko osagai direla.

## **Apostolutza bateratua**

**55.** Bataiatu bakoitzak bakoizka hartzen du parte Elizaren ebanjelizatze-lanean, eta apostolutzako bere ekintza pertsonala guztiz beharrezko eta ordezkari ezina da<sup>84</sup>; hala ere, batera eta era antolatuan egindako apostolutza-modu desberdinak fedearen elkarteko esperientziaren eta beronen ebanjelizatze-alderdiaren adierazpen eta testigantza bikaina dira<sup>85</sup>. Apostolutza-era hau «erantzun egokia da fededunen giza eta kristau-beharrentzat, eta, aldi berean, Kristogan Elizak duen elkartasun eta batasunaren ezaugarri da»<sup>86</sup>.

Laikoen apostolutzako era askotako ekimenak ugaritzea, Espirituak, ebanjelizatze-zerbitzua hobeto egin ahal izateko, lekuko Elizei egiten dien erregali handia da. Aldi berean, antolaketa, gizartearen erdian misiolari-ihardueraren beharrei erantzuteko sortzen da, eragin handiagoa izateko.

Indartu egin nahi dugu aniztasun aberats hau. Mendebaleko gure kulturak, era antolatu eta elkartuan arduratsu parte hartu ez, baizik eta, garbi-garbi, era zatikatu eta pribatuan aritzeko joera erakusten duen une honetan, Elizaren elkarte-aberastasunak balio profetikoa hartzen du; eta, aldi berean, gogo eta ahalegin handiagoak eskatzen dizkie kristau-elkarteko kide direnei.

Dena den, ohartzen gara, eliz barruko bazkunetan ihardute hau egoki arakatu beharra dagoela; hain zuzen ere, bide eman dezake kristau-elkartearen zatiketarako, lekuko Eliza urrutiratzeko edota Elizaren bizitza alor pribatura mugatzeko ere.

## **Laikoen harremanak Hierarkiarekin**

**56.** Vatikanoko II. Kontzilioak argibide oso zehatzak eskaintzen dizkigu, laikoek Elizaren Hierarkiarekin izan behar dituzten harremanei buruz<sup>87</sup>. Laburbildurik emango ditugu hemen.

### **• *Jainkoaren Hitzarako eta sakramentuetarako eskubidea***

Lehenengo eta behin, bataiatu guztiei aitortzen zaie, Elizagandik Jainkoaren Hitzaren eta sakramentuen dohainak hartzeko duten eskubidea. Baina, horrek ez du esan nahi, dohain hauek edonori eman edota edonork har ditzakeenik, prestaera egokirik gabe, alegia, eta barne-jarrera zuzenik gabe ere.

---

<sup>84</sup> Ikus AA 16.

<sup>85</sup> Ikus CLIM 96.

<sup>86</sup> AA 18.

<sup>87</sup> Ikus LG 37.

- ***Bere beharrak, nahiak eta iritziak adierazteko eskubidea***

Fededunek eskubide dute beren nahiak eta beharrak, errespetuz eta konfiantzaz, adierazteko; gehiago oraindik, «beren jakintza, prestaera eta itzalaren arabera, eskubide dute –eta, inoiz, beharra ere izan daiteke–, Elizaren onari dagozkionei buruz beren iritziak emateko. Hala behar izanez gero, hori, Elizak horretarako ezarriak dauzkan erakundeen bidez egin behar da»<sup>88</sup>.

Zenbat eta gaitasun handiagoa izan Elizetako eta elkarteetako goreneko arduradunek entzuteko eta harrera ora egiteko, orduan eta eragin handiagoa izango du laikoaren eskubide honek. Artzainen eta fededunen arteko harremanek famili, askatasun- eta konfiantza-girokoak izan behar dute, Kontzilioak berak dioenez.

- ***Menpekotasuna, elkartasuna indartzeko***

Era berean, gogora ekartzen die Kontzilioak laikoei, kristau-menpekotasunez onartu behar dituztela Elizako arduradunek ezarritako arau eta erabakiak. Jokabide hau eta beronen oinarri den barre-harrera ezinbestekoak dira gure Elizen eta elkarten barruko elkartasuna indartzeko, eta baita berauen eta beste 'Elizen artekoa indartzeko ere. Eliz elkartasuna, norberaren lekuko Elizan egiten da lehenengo, Gotzaina duela zerbitzari nagusi eta begibistako erreferentzia. Baina Eliza honek kontuan hartu behar du Elizen arteko elkartasuna ere, Aita Santua buru duela gotzain guztien Batzarraren batasunean adierazten dena.

- ***Autonomia eta ekimena***

Azkenik, Kontzilioak dei egiten die artzainei, sekularren duintasuna eta erantzukizuna sustatzera Elizan, hauen autonomia errespetatuz eta ekimenerako askatasuna eskainiz. Helburu hauek lortu ahal izateko beharrezkoak izango dira, alde batetik, Jainkoaren seme-alaben askatasuna, beren barrua azaltzeko, eta berorien barne-jarrera, artzainen erabakiak gogo onez hartzeko; eta, bestetik, artzainen jarrera kristau-elkarteko kideen pentsaera eta esperientzia arretaz ezagutu eta arakatzeko, jakinik, hor lanean ari dela Jesusek Elizari bidaliko ziola agindu zion Espiritua ere.

## **Pastoral Kontseiluak, partehartze- eta erantzukizun-ihardunbide**

**57.** Eliz bizitzan sekularren partehartzeari eta erantzukizunari eginkorri bide eman ahal izateko ezarriak dauden antolamendu eta ihardunbideen artean, pastoral Kontseiluak daude garrantzizko leku berezian, bai parroketakoak bai elizbarrutikoak. Asko dira, apaiz, erlijioso eta erlijiosekin batera, kontseilu hauetan era ekilean parte hartzen duten sekularrak; horrela, egiaz erabiltzen dute beren erantzukizuna Elizaren bizitza pastoralari dagozkion erabakiak hartzekoan.

Gauzak oker ulertzea izango litzateke, laikoek behar bezala egintzara eramandako erantzukizunaren aitormen honetan, Elizaren Hierarkia izateagatik

---

<sup>88</sup> Ibid.



gotzainei eta apaizei Elizan eta kristau-elkarteetan dagokien zeregina galarazi edota mugatu nahia dagoela pentsatuko balitz. Ardurakide izateak ez du esan nahi gotzainen eta apaizen pastoral ministeritza mugatu egiten denik. Alderantziz, gure Jaunak Eliza osoari emandako ebanjelizatze-lanean eta zereginetan leialki eta borondate zintzoz parte hartu nahiaren adierazgarri izan behar du.

Kontseilu hauetako kide guztiek parte hartzen dute, pastoralgintzarako hoberena zer den elkarrekin bilatzen, elkarrizketa eginez eta batak besteari entzunez, jarrera askea izanez eta erantzukizunez, baita kritika eginez ere. Egia da gotzainek eta parrokoek esku hartzeko bideak jarri behar dizkietela laikoei erabakiak argitu eta prestatzekoan; baina, azken batean, beraiei dagokie erabakiak hartzea, eman zaren pastoral erantzukizunaren arabera<sup>89</sup>. Erabakiak hartu aurreko prozesuetan eginkorri parte hartu izanak erraztu egingo du, nolana ere, erabaki horiek onartuak eta egintzara eramana izatea.

Gotzainen eta apaizen esku dagoen pastoral ministeritzari dagokio, bilaketa-prozesu hori kontseilukide guztien askatasuna bizkortu eta zainduz egiten laguntzea; baita sen onez guztia arakatu eta, azkenean, batasuna eta pastoral onik handiena lortu nahirik, zer den egin behar dena erabakitzea ere. Hori guztia Elizaren Buru eta Artzain den Jesukristoren ministrari izatetik datorkien agintearen iharduera da.

---

<sup>89</sup> Hori ezartzen du Elizaren araudiak, bai elizbarrutiko pastoral Kontseiluentzat (EAK 511. kan. eta 514 kan.a, 1. §), bai parroketako pastoral Kontseiluentzat (536. kan.a, 1 eta 2. §§).

## IV.- LEKUKO GURE ELIZENTZAKO ERRONKAK

**58.** Idazkiaren azken atal honetan ez ditugu agortu nahi, orain arte esan dugunetik sortzen diren eginkizun eta ondorio praktiko guztiak. Nahi duguna da, gaur egun larrien iruditzen zaizkigun erronkei erantzuteko jokamolde batzuk eskaintzea, horrela gure Elizetako laikoen deiari eta eginkizunari bere balioa aitortzeko eta indarra emateko:

### **Laikoen espiritubidea lantzea**

- ***Espiritubidearekin esan nahi duguna***

**59.** Espiritubidea edo espiritualitatea esatean, kristau-nortasuna bizitzeko era zehatza esan nahi dugu, fededun baten edo fededun talde baten bizigiroan maitzen den era zehatza. Pertsonak Jainkoarekiko harremana Espirituaren arabera bizitzeko era berezia da, horrek berekin dituen jarrera eta espresio-moldeekin. Nahasian daramatza sinesmen bizia eta erlijio-esperientzia, grazia eta hautapen pertsonala; eta norberaren bokazioa eta misioa Elizan eta gizartean bizitzeko eta aurrez aurre hartzeko gaitzen gaitu.

Laikoen espiritubideak Hirutasunaren misterioan dauzka bere sustraiak. Espirituak eraginik, Jesusi jarraitzea da mundu honetako bidean, Aitarekin topo egin artean, Beraren alaba edo seme sentituz eta giza historiako gizon-emakumeen senide.

- ***Jainkoaren gizon eta emakume***

**60.** Laikoak Jainkoaren gizon eta emakumeak dira. Gure artean «Jainkoaren gizona» esamoldea, apaizari deitzeko erabili izan dugu. Baina baliozko esamoldea da fededun orori deitzeko. Jainkoaren seme-alaba garenez, denok gaude Jainkoaren gizon edo emakume izatera deituak.

Laikoen espiritubidearen osagai ardatza Jainkoaren Hitzarekiko hurbiltasuna eta otoitz pertsonala dira. Laikoak jator erantzun behar dio Vatikanoko II. Kontzilioak egin zion gonbiteari, Liburu Santuak pertsonalki eta askotan irakurriz Jainkoaren Hitza jasotzeko gonbiteari, alegia. Hitza sarri irakurriz fededunak sumatuko du, Jainkoaren salbamen-egia historiari lotua dagoen testu baten bidez hedatzen dela; baina, hala ere, balio iraunkorra duela eta gaur egungo errealitateari egokitu behar zaiola.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu, laiko askorentzat, Jainkoaren Hitzera iristeko aukera bakarra, igandeetako Eukaristia dela. Horregatik da beharrezko bertan biziki eta ohartuz parte hartzea; baina baita ospakizunak arduraz prestatzea ere. Horrek zuzen-zuzen ukitzen ditu ospakizunetan buru egoten direnak. Gure parroketan, gainera, zabaltzen ari da Ebanjelioak eskura emateko ohitura, Sendotzako sakramentua ospatzean. Sendotzak gune egokia eskaintzen du, gazteengan eta kristau-elkarteko beste kideengan Jainkoaren Hitzarekin sarritan izan beharreko harremanak sustatzeko.

Jainkoaren Hitz idatzira zuzenean iristeko aukeraz gainera, gizon-ema-kume laikoek munduko bizieraren liburua irakurtzeko gai egin behar dute, eta han entzuten ikasi Jainkoak zuzentzen dien hitza, «aldien ezaugarrien» bidez batik bat. Kristauaren munduko ihardunbideak ez du izan behar, gizartea zuzenago bihurtzeko giza lankidetzaren hutsa. Jaunarekin topo egiteko bide ere izan behar du, historiaren barruan bere Erreinuari aurrera eragiten dion Jainkoa kontenplatzeko<sup>90</sup>. Horretan oinarriturik, errealitatearen irakurketa fededunaren ikuspegitik eginga izan daiteke, gaur eguneko argilunetan «Jainkoaren Erreinuaren haziak» aurki daitezke eta, azkenik, munduko errealitatearen bihotzetik otoitz egin daiteke.

- ***Ebanjelioko baloreak sustraitik bizitzea***

**61.** Laikoen espiritubidea Jesusen jarraipen erabatekoak markatzen du. Ez du beste kristau-biziera batzuk baino eskakizun gutxiago. «Erlijioso-bizierari» aitortzen dizkiogun ebanjelio-baloreak berez kristau-bizierari dagozkionak dira. Balore beroriek bizi behar ditu laikoak munduko bere bizitzaren gora-beheretan<sup>91</sup>. Fededun guztiek Ebanjelioaren argitan planteatu behar dute beren sexualitatea, beren afektibitatea eta aita-amatasuna; zoriontasunen espirituari begiratzuz erabili behar dituzte beren ondasun materialak, pobreen zerbitzura ipiniz; eta beren buruak, beren denbora eta beren ahalmenak erabiltzean, Jainkoaren borondateari obeditu behar diote.

Ebanjelioa sustraitik bizitzeko era honetan hartzen du bere esanahi betearen zentzua bertutek, hala nola: pobreenekiko solidaritzak, sufritzen dutenekiko errukiak, onginahirako eta barkaziorako gaitasunak, agintearen aurrean libre izateak, diruaren aurrean eta harreman pertsonaletan garbi jokatzeko, inor menperatzeko goserik gabe emana eta zerbitzari bizitzeak, justiziaren alde aspertu gabe borroka egiteak, egoera zailetan itxaropena eta barre-ahalmena izateak, norberaren gurutzea kargatu eta besteena elkarbanatzeak.

Zuek, kristau laikook, eta zuekin batera gure Elizetako pastorgintzak, argitu eta sustatu egin behar dituzue laikoen espiritubidearen molde hauek; horrek Elizaren barnean bokazio laikalako sortarazteko balioko du. Hobeto ulertuko da, era horretan, apaiz-ministeritzarako eta «erlijioso-bizitzarako» bokazioak landu behar larria, bokazio guztiek elkar osatzen dutela ikusiz eta kristau-bizitza osoa bokazio-ikuspegi honetatik begiratzuz. Horrek guztiek lagundu egingo digu, hobeto eta era beteagoan ulertzen bokazio bakoitzaren nortasuna.

## **Bakarkako apostolutza balioztatu eta indartzea**

- ***Bataiatu bakoitza, Kristoren bitartekari eta Elizaren azalpen***

**62.** Bakarkakoapostolutza ezinbestekoa da Ebanjelioa aldarrikatzeko; bera da, gainera, beste ebanjelizazio-era guztien oinarria. Fededun bakoitzaren ebanjelizatze-ekintza eta apostolutza-erantzukizuna ordezka ezina da Elizaren misio-eginkizunean. Bataiatua izan den pertsona, munduan Kristoren bitarteko eta

---

<sup>90</sup> Ikus CFL 15.

<sup>91</sup> Ikus LG 42.

Elizaren azalpen izatera deitua dago, bere bizitzaz eta testigantzez. Horretaz oharturik egon ala ez, gizon edo emakume kristau bakoitzak sinesgarritasun handiagoa edo txikiagoa ematen dio kristau-mezuari, bizi den giroan.

Gure Elizetako pastorgintzak ahaleginak egin behar ditu, bataiatuak ez dezan bere fede-aitormena eliz girora edo igandea ospatzera mugatu; bere bizitzan bizi dituen alderdi eta egoera guztiak hartu behar dizkio. «Praktikatzaile» hitzari, igandeko Eukaristian parte hartzea baino esanahi zabalagoa eman beharko litzaioke, eta eguneroko bizitzaren jarrera eta portaerak ere jaso beharko lituzke, Ebanjelioarekin bat datozen jarrera eta portaerak. Era horretan, sinesmenak fededun bakoitzaren bizitza argitzen duen neurrian, kristau-mezuaren beharrezko inkulturatzea gertatuko litzateke gure artean.

### • ***Gizabanako bakoitzarenganako arreta***

**63.** Han guztia egia bihur dadin, bistakoa da gure Elizek eta kristau-elkarteek ardura apartekoa eskaini behar diotela gizabanako bakoitzari. Elkartez hitz egiten dugunean ez dugu behar adina nabarmentzen, pertsonak Jainkoaren begirada arduratsuan osabetetzen direla. Izan, pertsonak dira ebanjelizazioaren lehen helmuga. Beste edozein helbururen gainetik pertsona bakoitzaren nortasuna nabarmentzeak ez du esan nahi indibidualismo bakarzalearen eta espiritualismoaren alde gaudenik; baizik eta horrekin Elizaren bidea gizakiaren historia zehatzean hezur-mamitzen dela adierazten da. Pastorgile guztiei dei egin nahi genieke, beren ekintzan eta zerbitzuan lehentasuna gizon-emakume konkretuekin pertsonalki topo egiteari eman diezaioten, beren ilusio, proiektu, arazo eta kezka dituzten gizaki konkretuekin, alegia, eliz talde baten osagai izengabeko bezala begiratzeko ordez.

Bakarkako apostolutzaren garrantzia azpimarratzeak, sinestedunek familian eta gizartean bizi duten kristau-konpromezua bultzatzera eramane behar gaitu eta bizitza publikoaren alor ezberdinetako iharduera eragitera, eta bizitza sozialean sortzen diren ekimenetan herritar bezala parte hartuaraztera. Era askotako ekimenak izan daitezke eta balio desberdinekoak: heziera-zentroetan, hirugarren adinekoen biltokietan, bakearen aldeko mugimenduetan, sindikatuetan, auzo-elkarteetan, alderdi politikoetan, kultur ekintzetan edo kiroltaldeetan.

### **Laikoen ebanjelizatze-ekintza ezkontzan eta familian<sup>92</sup>**

#### • ***Ezkontza eta familia, ebanjelizatze-ekintzarako lehen alorra***

**64.** Ezkontza eta famili bizitza dira, laikoen bokazio berezia garatzeko alorrik garrantzitsuenetakoa. Ezkontzak eta familiak berengan biltzen dituzte giza izatearen alderdi oinarrizkoak, hala nola: maitasuna, lana, bizia sortzea eta oinarriko baloretan hesitzea, bizikidetzeta, elkarte-bizitza eta harreman pertsonalak. Ez da harrizkoa gainera, antz oso handia izatea famili elkarteak eta eliz elkar-

---

<sup>92</sup> FAG idazkian, 70-104 zenb.etan, azalpen zabalagoak aurki daitezke, hemen aipatzen diren puntuei buruz.

teak. Vatikanoko II. Kontzilioak «etxeko Eliza» deitu zion familiari<sup>93</sup>; Eliza, berriaz, «Jainkoaren familia» bezala ikusi zuen<sup>94</sup>. Hala ere, ezkon- eta famili bizi-tzari ez diegu ardura egokia eskaintzen gure Elizen ebanjelizazio-ekintza osoan. Gure pastoralgintzak badu halako lotsa edo beldur pixka bat sukaldera sartzeko, sukaldea Berri Ona aldarrikatu eta testigatzeko leku izango ez balitz bezala.

Asko dira, alor honetako ebanjelizatze-ekintza bidezko egiten duten arrazoiak. Eta bertan laikoek izan behar dute protagonista nagusi. Arrazoi horien artean honako hauek: bizia babestu eta sustatzea, fedea eta berari dagozkion balore etikoak hesitzea, bikoteei alderdi guztietatik sortzen zaizkien arazo larrien ardura izatea, famili giroan laneko gorabeherak sortzen dituzten arazoaren ardura, emakumearen duintasunaren ardura. Honek guztiak alor oso aproposa eskaintzen die emakume eta gizonezko laikoiei beren kristau-esperientzia eta heren konpromezu berritzailea bizi ditzaten.

- ***Ezkontza- eta famili pastoraltza zaindu beharra***

**65.** Senar-emazte eta guraso kristauak kristau-bizieraren lehen eskola ikusi behar dute familian, eliz errealitate oinarritzkoa denez: bertan bizi izaten eta itsasten baitira balore oinarritzkoak, hala nola: transzendentzia-zentzua, Jesus ezagutzea, otoitz-jarrera, sufritzen edo beharrean dagoenarekiko solidaritza, harremanen doakotasuna edo gizaki ororen duintasunarekiko errespetua.

Gure Eliza eta parrokiek zaindu egin behar dute ezkontza- eta famili pastoraltza, familiarren barruan Jesusi jarraitzen laguntzeko. Zehazki, familia bera sendotzen saiatu behar dute, seme-alaben kristau-heziera eta gurasoen baraien fedearen ardura sustatzen, eta giza- eta kristau-baloreen hazkuntza bultzatzen.

Beste alde batetik, alor honetan fededunek sarri egiten dute topo sufrimentuaren, porrotaren eta gurutzearen esperientziarekin, bai beren bizitzan bai besterenean. Kinka larrian edo etenik bizi diren bikoteen saminak, nahi gabeko haurduntzeen sufrimentuak, ezin ditzakete axolagabe utzi kristau-elkartea eta beraren kideak. Gure Elizek eta elkarteek ahalegina egin eta irudimena erabili behar dituzte, ezkontzako harremanak zailtasunetan bizi dituztenei edo porrotaren fruitu garratza jan dutenei Jainkoaren begirada errukizkoa hurbiltzekoan. Aitortu beharra daukagu, askotan gehiago jotzen dugula gaitzestera, artzain onaren hurbiltasuna eskaintzera baino. Harrera eta aholku-lekuak sortzea aukerako baliabidea izan daiteke erakusteko, Jainkoa gertu dagoela bere seme-alaben arazo eta minetan.

## **Apostolutza bateratuan parte hartzea**

### ***Horren zergatia eta helburuak***

**66.** Aberastasun handia dago Elizan apostolutza bateratuaren era ezberdinetan. Eta hori, sekularrentzat, Elizaren ebanjelizazio-ekintzan parte hartzeko

---

<sup>93</sup> LG 11.

<sup>94</sup> LG 32; GS 40.

gonbitea da, bakoitzaren bokazioa eta konpromezua kontuan hartuz<sup>95</sup>. Lekuko elkarteek eta hauen arduradunek ahalegina egin behar dute bazkun, talde eta elkarte txikiak sortu eta zaintzen, horrela beren ebanjelizazio-indarra gehitu eta areagotzeko. Talde horietan aurkitu behar dituzte kristauek harrera- eta askatasun-guneak beren fedea janaritzeko, Jesusen jarraipenean sakontasuna eta koherentzia irabazteko, Ebanjelioaren argitan beren praxia aztertzeko, elkarte-espirituan hazteko eta ebanjelizazio-eginkizunarekiko zerbitzua berritzeko<sup>96</sup>.

Eraikita dauzkagun bazkun, talde eta elkarteek ez dute ahaztu behar, gizabanako bakoitzaren eta gizartearen ebanjelizazio-zerbitzuan iharduten duten neurrian hartzen dutela beren zentzu betea. Talde horiek, besterik gabe, erakusten dute, gizakiak elkarte-sena duela bere baitan, eta hortik beste fededunekin Jainkoaren salbazioa elkarbanatu beharra datorkiola eta ebanjelizazio-ekintzara emana bizi beharra.

Kristauen eta Elizaren ebanjelizazio-ekintzak bere-berea eta berezkoa du mundukotasuna; horregatik, laikoen apostolutzaren ekintza ezberdinek arreta bereziz bultzatu behar dute gizarteko bizitzan laikoen iharduera eta partehartzea. Halaber, egoki izango litzateke taldeek, bakoitzaren nortasunaren eta bokazioaren arabera, eta gizarteko gaietan aukerak egiteko askatasunari zor zaion begirunez, galdera egitea beren buruei, nolako eragina daukaten herri-bizitzan eta zer eskaintzen duten gizarte zuzenago eta solidaritza gehiagokoa eraikitzeko, Jainkoaren erreinuari dagokion bezala.

## • **Arakatu eta koordinatzea**

**67.** Lekuko Eliza da berezko kokagunea, apostolutza bateratuaren azalpen ezberdinetaz elkarrizketa eta araketa egiteko. Lekuko Elizan bazkun, elkarte eta apostolutza-talde ezberdinek beren artean behar dituzten harremanak eta koordinazioa ez dira lortu behar arrazoi praktikoengatik edota eragin handiagoa izateagatik bakarrik. Eliz elkartasunaren arrazoi teologikoa dago sustraian eta Erreinu aldarrikatzean Elizak behar duen sinesgarritasunaren ezaugarri garrantzizko izatea.

Sekularren Apostolutza Ordezkaritzari dagokio edota elizbarrutiko antzeko beste erakunderen bati, apostolutza bateratua adoretzeko erantzukizuna, baita bera koordinatzea ere, gure Elizetan laikoek heldutasuna lortzeko bidean aurrera egin dezagun.

---

<sup>95</sup> CLIM idazkiko 92. zenb.an sailkapen hau eskaintzen da, gaur egungo bazkun balore eta arazoak aztertzeko:

- *laikoen mugimenduak*: kristau laikoen heziera dute lehen helburu, kristau- eta eliz bizikizun sakona lortzea;
- «*espiritubidea lantzen duten mugimenduak*»: espiritubide jakin bat ezagutarazi eta biziaraztea dute helburu, edota bizitza santuagoa sustatzea, edo eliz kultua indartzea;
- «*mugimendu berriak*»: batez ere Elizaren misterioaren alderdi bereziren baten bizikizuna sustatzea dute helburu: batasuna, elkartasuna, elkarraitasuna...

<sup>96</sup> Ikus AA 18.

- ***Ekintza Katolikoa sustatzea***

**68.** Vatikanoko II. Kontzilioak dei berezia egiten zigun gotzainoi, gure elizbarrutietan Ekintza Katolikoa sustatzera. «Berak, bere ekintza ezberdinetan, 'elizbarrutiko laikoen' apostolutza-era ohikoa azaltzeko bokazioa dauka, laikoak era egonkorrean uztartzen dituen erakunde bezala eta elizbarrutiko pastoraltzaren eragintasunari elkartua»<sup>97</sup>. Horregatik, gure lehentasun pastoralen artean Ekintza Katolikoari ere eman beharreko bultzada azaltzea nahi genuke. Pentsatzen dugu, Ekintza Katolikoak erabiltzen duen bizi-azterketaren metodoa, tresna baliokoa dela, bizitza osoa fedearen argitan ikusten laguntzeko eta ekintza ebanjelizatzailea bultzatzeko.

### **Gizarteko ingurugiroen pastoraltza lantzea**

**69.** Laikoak ebanjelizatzaile nagusitzat hartzeak gizarteko ingurugiroen pastoraltza deitzen dugunari behar bezalako ardura eskaintzea eskatzen du. Era antolatuen artean beronek erakusten du ondoen nolakoa den kristau laikoen ihardura berritzailea gizartearen barnean<sup>98</sup>. Bere nortasuna segurtatzeko, pastoraltza honek gogoan eduki behar ditu ebanjelizazioaren alderdi oinarrizkoak (testigantza, aldarrikapena, salaketa, eraldaketa, eliz elkartasuna), politikagintzaren irizpide ebanjelikoetara egokitu behar du (biziaren eta beste giza eskubideen babesa, pertsonaren lehentasuna, solidaritza eta legezko eskakizunei laguntzea), eta zoriontasunen espirituan hartu behar du barruko arnasa<sup>99</sup>.

Gizarteko ingurugiroen pastoralgintza horretara irekiak dauden alor adierazgarrienak aipatuko ditugu segidan.

- ***Lan-mundua***

**70.** Langileen munduak gaur egun aurrerapauso handiak eman baditu ere garai bateko mugak gaindituz, oraindik ere giza eta sozial garrantzi bereziko alorra izaten jarraitzen du Elizarentzat, eta interes handikoa. Ekimen eta ahalegin bereziak eginagatik, Eliza eta beraren mezua oraindik ere arrotzak zaizkio sozial alor honi. Pobrezia eta zokoraketa sortzen dituzten egiturek indar handiz eragiten diote. Langabeziak gure gizartea mintzen duen zauri odoltsua izaten jarraitzen du. Gazteen lanak sarritan ez ditu betetzen giza duintasunak eskatzen dituen garantia gutxienekoak.

Denok galdetu beharko genieke geure buruei, zer ondorio sozial daukaten gure portaera ekonomiko, laboral eta profesionalek. Gure Elizek, lan-munduan dauden gizon-emakume kristauei lagundu egin behar diete beren langile-erantzukizunaren kontzientzia lantzen, eta lanik ez daukatenezik edo baldintza eskasetan lan egiten dutenekiko solidaritza izaten. Era berean sustatu egin behar dute lan-erakundeetan partehartzea eta beraien helburu legezkoekin bat

---

<sup>97</sup> CLIM 95.

<sup>98</sup> Ikus EN 18.

<sup>99</sup> Ikus CLIM 55.

egitea, gizarteko ingurugiroetatik ebanjelizazioari datozkion erronkak geuretzeko.

Langileen ingurunea lehentasuna duen ebanjelizazio-alorra da oraindik ere. Laikoei dagokie Ebanjelioaren mezu askatzailea langile-ingurunera eramatea eta, bide batez, langileen problematika, kezka eta lorpenak Elizara ekartzeari<sup>100</sup>.

### • **Profesionalen ingurunea**

**71.** Gure gizarteak alor profesional berriak sortarazi ditu. Pertsona soldatadunek egiten dituzte beren ekintza produktiboak alor horietan; baina, hala ere, ez dira sartzen «langileria» deitu izan dugun ulerkera klasikoan. Hor sar genitzake, besteak beste, teknikoak, profesional berezituak, irakasleak edota osasun-munduko langileak. Kultur moldeak sortzen eta sendotzen eragin handia duen alor sozial berria dugu hau. Eragin berezia daukate, gure ustez, intelektualek, heziketan eta irakaskuntzan ari diren profesionalek, eta komunikabideetakoek, gure gizartearen etorkizunerako lekurik arduragarrietan jarriak baitaude beren eginkizuna betetzen.

Profesional horiek berak izan behar dute lehenak errealitate berri honetaz jabetzen, zuzenbidezko irizpidez eta giza eta ebanjelio-solidaritzazko irizpidez jokatzeko. Baina gure Elizek ere saiatu beharko dute horiei Ebanjelioaren mezua eskaintzen, bakoitzaren alor profesionaleko arazoei kristau-erantzuna eman ahal izateko.

### • **Baserri-ingurunea**

**72.** Ezaugarri berezi eta desberdinekin, baina gure elizbarruti guztietan bada baserri-ingurunea. Ingurugiro honen ezaugarrietako bat herri txikietako bizikidetzaren berezia da, eguneroko bizitzan elkarrekiko solidaritza izatea sortzen duena; baina, aldi berean, ingurunearen lotura ere sortzen du, eta lotura hori, askotan, eragozpen bihurtzen da nork bere sinesmen-iritziak edota konpromezuak adierazteko, baita erlijio-bizitzan ere.

Ingurune hauetan bizirik irauten du, herniaren erlijio-bizitzatik sortutako ohitura eta tradizio askok, nahiz eta, beste ingurugiroetan bezalaxe, bizitza-era eta kultur baloreetan aldaketa sakonak nabaritu. Egoera honek behartu egiten ditu kristauak erlijio-adierazpenen egia aitortu edota berreskuratzea, ohiturakeria hutsean jarraitu gabe.

Bestalde, baserri-giroko gure herri askotako kristau-elkarteen bizitzan zera nabari da: beren artzainek eskaintzen dizkieten ekimen eta zerbitzuen mende bizi direla, jarrera pasiboan zain egote hutsean. Hala ere, badira laikoak, emakume eta gizonezkoak, bihotz zabalez eta iraupenez era askotako zerbitzuak egiten dituztenak.

Sekularrei dagokie, beren artzainengandik beharrezko prestaera eta laguntza dutelarik, gizarteko ingurugiro hauetan Elizaren ebanjelizatze-ekintza ar-

---

<sup>100</sup> Ikus LE 8.



nasberritzea. Badira egintza itxaropentsuak, esate baterako: laikoek betetzen dituzten ministeritza batzuk, aldian aldiko langileei harrera- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzea, hirugarren munduan misiolari-solidaritza eta aurrerapen soziala eragitea, edota beren ingurunean alor sozial eta kultureko arazoetan partehartzea.

- ***Gaztedia***

**73.** Laiko gazteak, etorkizuneko Eliza ikustarazi eta, nolabait, aurreratzeaz gain, oraingo Eliza eratzen ari dina dagoeneko. Horiexek dira kristau-elkar-tearen barnean bizikien sentitzen dutenak, Elizak gaurko munduan bizi duen egoera eta ebanjelizazioari aurrean jartzen zaizkion erronka handiak.

Gazte kristauak, beren garaikideen artean gutxi direla jakinik ere, benetan auzipetuak sentitzen dituzte beren buruak, berentzat gehiegizkoa den ebanjelizazio-eginkizuna dela eta; gaurko pentsamoldera eta kulturara egokitutako ebanjelizazioaren beharra sumatzen dute; gaurko gizartean sakonago eta berri-tuago inkulturatzeko, Elizak bizi dituen aurrerapauso eta zailtasunak beren har-gian sentitzen dituzte; kristau-elkarteen biziberritzea espero dute. Gero eta garbiago ikusten dute, beren bizkarrera datorkiela gazteen mundua ebanjeliza-tzeko eginkizun nagusia.

Poz handiz ikusten dugu, lekuko gure Elizen pastoral ahaleginik onenak gazteen munduari eskaini zaizkiola. Bide horretatik jarraitu behar dugu, gure elkarteetako gazteak beren giroan gero eta nabarmenago san daitezela bilatuz, jakinik, ingurugiro horretan ere eraikitzen ari dela Jainkoaren Erreinua eta ho-rrela Elizaren ebanjelizazio-eginkizunean parte hartzen dutela.

- ***Ikasleen mundua***

**74.** Gure lurraldeko gazte gehienak ikasleak dira, eta horien artean asko uni-bertsitariak. Gure gazte-katekumenotza osatzen dutenak ere eta, katekista edo monitore bezala, gazte-pastoraltzaren sustapenaz arduratzen direnak, gehienbat ikasleak dira. Kristau-elkar-tearen barnean erakusten duten ahalegin eta ihardu-era honek, ordea, sarritan ez du bere osagarria aurkitzen, ikasleen mundu bere-ziko ekintza, talde eta erakundeen barruan testigantza emateari eta parte har-tzeari dagokienez. Eten bat nabari da, Eliz giroan aitortzen dutenaren eta beren denbora gehiena betetzen duen horretan iharduera eragilerik ez izatearen ar-tean; eta jokabide honek askotan fedearen eta bizitzaren arteko eten egiazkora eramaten ditu gazteak.

Horregatik, aitortzen ditugu eliz barruko beren saiatzea eta konpromezua; baina planteaketa bat egitera gonbidatzen ditugu: nola sarturik egon kristau bezala, berengan eragin zuzen-zuzena duen giroan, Unibertsitatean eta ikaste-txeetan, alegia. Hortxe baitaude deituak Berpiztuaren testigu, izatera eta Jain-koaren Erreinuaren etorreraren alde lan egitera, biziki parte hartuz egiazko as-katasun-, anaitasun- eta solidaritza-giroa sortzeko egiten diren ekimen guztie-tan.

- **Marjinazio-giroak**

**75.** Marjinazio eta behar larria sufritzen den giro ezberdinetan Elizak duen iharduera adierazgarriari eutsi eta indarra eman beharra daukagu. Eliz erakundeen ahalegin saiatuari esker eta, era berezian, Caritasi esker, eta laguntzara eta sozial garapenera emanak bizi diren erlijioso-familiei esker, askoz biziagoa bihurtu da alor honetan Eliza osatzen dugunon kontzientzia. Pobrezia-alor berriak azaldu dira «Laugarren mundua» deritzan horretan, eta horiek egiazko erronka dira gizartearentzat eta baita kristau-elkarteentzat ere. Laikoak garrantzi handiko ekintzak ari dira egiten jadanik marjinazio-mundu honetan.

Alor honetan gure Elizetako laikoen ekintza gehiago bultzatu nahirik, honako iradokizun edo aholku hauek eman nahi genizkizueke: borondatezko iharduera ohartuagoa eta hobeto prestatua sortzea; borondatezko laguntzaileei laneko espiritua mantentzen eta lan hori fede-esperientzia bihurtzen lagunduko dieten laguntza-taldeak edo erreferentzi taldeak eratzea; eta orain bertan dauzkagun baliozko ekimenak koordinatzea.

### **Kultura balore ebanjelikoetatik arnasberritzea**

**76.** Lehen aipatu dugu nolako garrantzia daukaten ekintza profesional batzuek kulturgintzan. Kulturaren gai honetara etorri nahi dugu berriro, ikuspuntu orokorrago batetik, Pastoral Idazki honen gai zuzena hori ez bada ere. Kultur indarrek sakon mugatzen dituzte sentiera, pentsaera, jokamoldea eta besteekiko harremanak. Kultur indar horiek alde edo kontra egin diezaiokete garapen pertsonalari, garapen hori gizatasun osabetearen ikuspegi jatorretik neurtuz. Pertsona erlijio-gertaeraren aurrean eta balore etiko-moralen aurrean kokatzeko erak berak ere, badu zerikusia kultur indar eta eragin horiekin.

Poliki-poliki ohitzen joan gara gaur egungo kultur giro honetara; Jainkoa bai ote denik ez da aintzakotzat hartzen, ezta Jainko honek giza historian ari duen iharduera ere. Jendaurrean ez da Jainkoaren aipamenik ere egiten. Gauza bat da Estatua erlijio-alorrean konfesionala ez izatea; baina gauzak nahastu egiten dira, jendaurreko bizitzan inolako aipamen erlijiosorik ez egiteraino.

Gure Elizetako laiko-taldea osatzen duten gizon eta emakumeek ere noiztzen dute –ezin zitekeen bestela izan, gainera–, berak dabiltzan tokiko kultur giroaren eragina. Laiko horiek kultur hartzaile dira, baina baita, ohartuz ala oharkabean, kultur hartzaile ere. Kristauon erantzukizuna da, gure gizarteak normaltasunez eta bakez Jainkoaren oroipena berreskura dezan arduratzea, baita ezaugarri eta ohitura erlijioso jator, errespetuzko eta egiazkoen bidez ere. Gogoetarako eta jokamolderako puntu batzuk eskaini nahi dizkizuegu, gure gizarteko gizon eta emakumeen ardura biltzen duten kultur alderdi batzuei buruz.

## A) SOLIDARITZAZKO KULTURAREN ALDE

### • *Solidaritza eta sozio-ekonomi alorreko krisia*

77. Fededunok, gizaki garelako besterik gabe, anaitasunean eta solidaritzan bizitzera deituak gaude geure inguruko gizon-emakumeekin, eta baita mundu osokoekin ere. Gizaki izate hutsari dagokion berezko eskakizun han, ulermen-maila eta iraunkortasun altuagora jaso izan da gizadiaren kristau-ikuspegian; gizadia Jainkoaren seme-alaben familia egina izan baita Kristorengan. «Gizaki oro nire anai-arreba da» esaldia ihesbide edo amets utopikoa baino askoz gehiago da. Kristauok uste dugu gizartearen osabetetze sakonenaren azalpen dela esaldi hori, Kristoren Gorputzean egiaz, nahiz eta ez osorik oraindik, aurreratu zaigun osabetetze sakonenaren azalpen.

Baina sozio-ekonomi alorreko gaurko krisiak bere ikuspegi gogorra ezartzen duen ekonomi eredu kapitalista-neoliberalak eraginda, errealitate negargarrien aurrean jarri gaitu; errealitate horien azalpen adierazgarriena langabezia da. Anai-arreba izateko bokazioa hankaz gora joan zaigula ematen du egoera horiek ikusita. Solidaritzaren giza eta erlijioso-baloreen kontra, solidaritzarik ezaren kultura ari zaigu gailentzen, inolako intenbiderik gabea dirudiena, hain zuzen; eta kontsumokeria, aberastasun erraza eta hutsune etiko-morala dira gizatasuna galarazten digun kultura horri bide ematen diotenak.

### • *Oraintxedanik ekin beharra*

78. Ezin gaitzake ilusio sasiko batek engaina eta sinestarazi, geure eskuetan daukagula berehalako kultur aldaketa bat lortzea alor ekonomiko-sozialean. Baina badaukagu oraintxedanik aukera bat eta baita ebanjeliozko betebeharrak ere: benetan solidaritza kultura indartu nahiaren borondatez jokatzekoa. Era horretako portaerak ez dute pertsonari duintasuna eta goitasuna ematea bakarrik lortzen; gizadiak baztertu ezin dituen erreferentzi puntu batzuk ere seinaltzen dituzte. Ekonomi ondasunak banatzea, erantzukizun eta elkartasun gehiagoko produkzio-erak sortaraztea, guztien onerako norik bere irabazien murriztea onartzea, eskasian daukagun ondasunak hobeto banatzea, horien artean lana, hauek guztiak izan daitezke mundu berri bat egiteko borondate jator baten ageripide: gizatasunezko, solidaritza kultura eta anaitasunezko baloreez argituriko mundu berria egiteko, alegia.

### • *Solidaritza alderdi unibertsala*

79. Bizi garen mundu honek, bestalde, ahalbide tekniko indartsuak eskaintzen dizkigu, solidaritza kultura gizadi osoaren neurriko zabalera emateko. Herrialde askotan nozitzen dituzten beharra eta miseria hurbiletik ezagutu ditzakegu. Beharrezko laguntzak helarazteko bideak ere badaukagu. Gero eta ate gehiago daude zabalik, bateren batek gogo onezko bere laguntza eskaini nahi baldin balu. Elizaren misio-ekintza ere, Jesus Jaunaren aldarrikapena egiteaz gainera, era askotako zerbitzuak bideratzen ari da mundu guztien, laguntza eta sustapen soziala eskainiz. Ekintza horietan laguntzen dute kristau sekularrek, eta gobernu kanpoko erakundeetan parte hartzen dute. Kristau sekularrak, era honetan, solidaritza kultura alde jartzen dira, pobreen aldeko lehentasunezko aukerak eraginik, Jesusen mezuak agintzen digun bezala.

## **B) ELKARRIZKETAREN ETA BAKEAREN KULTURA INDARTZEA**

### **• *Istiluak eta Indarkeriaren kultura***

**80.** Bizi garen gizarte hau istiluaz blai daukagu. Gizarte libre eta partehartzaile baten berezko pluraltasunak sarritan gatazka-molde askotara eramaten du, legezko tirabirak gatazka bihurtuz. Eta istilua azaltzen da gizartearen bizi-esparru askotan. Gehien azaltzen den istilua politika-alorrekoa izan arren, bertan indarkeriara jotzen delako, istilu oso garratzak dauzkagu ekonomi eta kultur munduan ere. Era honetako gizartean, nahi diren helburuek lortzeko eragintasunaren irizpideak ohiko bihurtzera jotzen du, alde batera utziz horretarako erabiltzen diren bitartekoen balorapen etikoa. Indarkeriaren nola-halako kultura hedatzen ari da, gutxi-asko aitortua.

Kristau-kontzientziak eta giza adimenak berak ezin dezakete ontzat eman, gizarte-bizitza eta giza garapena ulertzeko era hau. Lortu nahi ditugun helburuen ontasunak eta zuzentasunak neurtu behar dute erabiltzen diren bitartekoen legezatasuna. Indartsuenaren botereak ez du ziurtatzen, berak defendatzen duenaren zuzentasuna. Jokalege orokortzat ezartzen den indarkeriak, behartsuak eta ahulak kaltetzen ditu gehien.

### **• *Elkarrizketa eta bakearen kultura indartzea***

**81.** Indarkeriaren kultura honen aurrean, guztioi egiten zaigu dei elkarrizketa eta bakearen kultura sustatzera, zuzentasunean oinarriturik. Hala egin behar du Elizak elkarteko bere izatearen eta ihardueraren maila ezberdinetan, oharturik, berari ere erasaten diotela gizartearen tirabira eta gatazkek. Kristauok geure elkarteetara eramaten dugu, horretaz ohartzeko ez bagara ere, harreman politiko-sozialetan bizi ditugun ulertezinen eta etenduren pisua. Hori horrela izanik ere, ezin ahaz dezakegu, elkarrengandik aldentzen eta gatazkan jartzen gaituena Espirituarengan gaindituz bakarrik izango garela gizadi adiskidetu eta baketu baten sakramentuzko ezaugarri. Kristau-elkarteek, elkarrizketa- eta adiskidetzaleku izan beharko lukete, beren begirada Jainkoaren Erreinuaren agintzaria den maitasunezko batasunera jasoz.

Laikoen gizarteko iharduerak ez du ahaztu behar bakearen esperientzia, beste era batera sentitzen, pentsatzen eta jokatzeko dutenek kristau-elkarte bat bertan bizi ohi den esperientzia. Neurri handiago edo txikiagoan, bakarka nahiz taldeka, denok eraman dezakegu geure gizartera elkarrizketaren eta gero eta baketze handiagoaren kultura. Alor hau irekia dago era askotako kristau-testigantza ematera, Jaunaren zoriontasunen espirituan argitu eta askatasunean bizi den kristau-testigantza, hain zuzen, baita horretan sufrimentua eta erasoak sortzen duten jarrera sozialak nozitu behar badira ere.

## **C) EMAKUMEAREN DUINTASUNAREN AITORMEN BETEAREN ALDE**

### **• *Gaur egungo sentiberatasun berezia arazo honen aurrean***

**82.** Gaur egungo kulturak sentiberatasun berezia erakusten du Emakumearen duintasunaren gaiari dagokionez eta beraren giza eskubideen aitormen beteari

dagokionez. Sentiberatasun hau ez dute era berean bizi herritar guztiek. Bada zenbait talde eta mugimendu, feministen eskubide jarrera batzuk zehatzago aztertu eta errealitatearen harian baloratu behar direla pentsatzen dutenak.

Ez da Pastoral Idazki honen helburua gai honen zuzeneko azterketan sartzea, bere konplexutasun eta sakontasun guztian. Ez litzateke, gainera, egokia izango adierazpen orokor eta absolutuak egitea, egoera guztiek berdinak izango balira bezala. Hala ere, aitortu beharra dago, gaurko munduko gizarte jakin askotan emakumearen egoerak indartsu eragiten diola gizartearen kulturari, eta, aldi berean, emakumearen egoera kultura horren ondorio dela.

Horregatik, bizitzaren beste alderdi batzutan gertatzen den bezala, kritika zorrotza egin behar zaio emakumeari buruzko herrien kulturari. Egokiera eman behar du gora-bidean aurrera egin dezan, Emakumearen duintasunaren eta emakume izatearen aukerak eta barre-ondasunak osoki garatzera iritsi ahal izateko. Hori mesedegarri izango litzateke pertsona bakoitzarentzat, baina, gainera, benetan aberasgarri gertatuko litzateke gizadi osoarentzat ere.

- ***Emakumearen garapen osoaren alde***

**83.** Emakumearen garapen osoaren aldeko ekintza eta mugimenduetan kristau laikoak tarteko izatea ekarpen baliozkoa izan daiteke. Berez duina eta esperantza-emailea den ekimen honek lagundu egingo luke, berdintasun gehiagoko etorkizuna lortzen eta denok, gizonezko eta emakume, parte hartzen, giza proiektu bateratuan. Bizitzaren giza duintasuna eta sentidua behar bezala ulertzeko Jesusen mezutik datorren argia eskaintzea, kristauok eskain dezakegun ekarpen baliotsunetakoa izan daiteke, emakumearen duintze betearen kontra doazen ideologia okerrekoiei aurre eginez.

Gai honi buruz, beste hau ere esan nahi dugu, azkenik: kristau-elkartek eta Elizak berak zabalik egon behar dutela, kulturari sustraiturik egiten ari garen planteaketa hauetatik beren barrean sor daitezkeen ondorio bidezkoak jasotzeko. Emakumeak laguntza preziatua eskaintzen du gure elkarteen pastoralgintzan. Eliz ardurakidetzako erakundeetan ez luke, eskubide bezala behintzat, gizonezkoek baino partehartze txikiagoa izan behar.

## **Heziera egokiaren beharra**

- ***Laikoak hezi eta trebatzearen erronka***

**84.** Laikoak Jainko-herriaren atal osagarri bezala hobeto ulertu nahiak, eta Elizaren ebanjelizazio-eginkizunean parte hartzeak zer esan nahi duen hobeto ulertu nahiak, heziera eta trebatze egokiaren erronka jasotzera garamatza ezinbestean. Baina kontuan eduki behar dugu, laikoak esatean ez dugula mugatu behar «pastoralgile» deitzen diegun ekintza-egileen multzo horretara, baizik eta Jainko-herri osoa dela. Horrek esan nahi du, hezierak muga oso zabalak eduki behar dituela, eta trebatu beharrekoak ez direla zerbitzu zehatz batzuk bete behar dituztenak bakarrik.

Fede-heziera iraunkorraren beharra planteatu behar dugu behin eta berri; eta zabalik egon behar du heziera horrek, gure parrokiekin eta elkarteekin nolabaiteko harremanak edo lotura dauzkaten guztientzat. Ez diogu uko egin behar heziera-eskaintza orokorrak egiteari, nahiz eta eskakizuna ahula izan eta eskaintza horiei ematen zaien erantzuna guk nahi edo espero dezakeguna baino eskasagoa izan. Beharbada hobeto erabili beharko genituzke, komunikabideek eskaintzen dizkiguten baliabide eta aukerak ere.

- ***Heziera berezitua***

**85.** Laikoen hezierak eta beren eginkizunerako trebatzeak, lehen esandakoaz gainera, iharduera-molde berezituak eskatzen ditu. Oso garrantzizkoa da, helburu hau lortzeko gure Elizek zerbitzu ugari jartzea laikoen eskura; baina horrek ezer gutxitarako balio lezake, horri zerbitzu horiek erabiltzeko gogoia eransten ez bazaio laikoen aldetik, beraientzat baitira izan. Zuek zeuok zarete, emakume eta gizonezko, gazte eta helduok, ekimen benetakoa hartu behar duzuenok, eta zeuon kristau- eta pastoral hezierarako behar dituzuen tresna eta zerbitzuak eskatu behar dituzuenak.

Gure elizbarrutiak ari dira fedearen oinarrizko hezierarako ikastaroak eskura jartzen, gero, oinarri horrekin, heziera egokituagoa edo berezituagoa egin ahal izateko, pastoral iharduera bakoitzak eskatzen duenaren arabera. Heziera honek pertsona fededunaren osotasunari begiratzen dio, eta ez adimena janzte hutsari. Kristau-bizitza osoaren bizikizunera iritsi nahi du. Ospakizun eta otowitzaren alderdia ere ezin daiteke heziera horretatik kanpo gelditi.

Laikoaren izaera bera gizarteko esperientzia eta harremanetan txertatua dagoenez, beronen hezierak beraren giro sozio-kultural berezian itsatsia egotea eskatzen du. Era askotako helburu sozio-kulturalak dituzten elkarteetan parte hartu behar dutenez, beharrezkoa gertatzen da aipatzen ari garen heziera laikal berezi hau. Ezin dezakegu ahaztu, ekintzaren dinamikak berak eta ideologiek indar handia erakusten dutela, fedea eta portaerak berenera tolestatzeko. Kristau-sinesmenak galdu egin dezake, irizpideen eta jokaeren azken erreferentzia izatea.

Munduan egoten jakitea, kristauaren nortasun berezia gordez egoten jakitea, eta mundu horretatik sortzen zaizkion Jainkoaren deiak entzuten jakitea, hori da laikoen heziera bereziaren helburua.

## V.- IHARDUERARAKO ONDORIO BATZUK

**86.** Pastoral Idazki hau idatzi baldin badizuegu, eliztar maiteok, lekuko gure Elizetako laikoen nortasuna argitzeko eta sendotzeko asmoz idatzi dizuegu, eta ebanjelizazio-eginkizunean beren partehartzea indartzeko. Beraren irakurketa lasaia eta egin dezakezen gogoeta, probetxuzkoa izango zaizuela uste dugu, lekuko zeuen Eliza, parrokia eta elkarteetan txertatuagoak sentitzeko. Idazkian egin dizkizuegun iradokizun eta deiek zenbait ekimen sortaraz dezakete, nahiz eta lekuan lekuko girora egokituak izan beharko duten, bai elizbarruti-mailan bai beste maila batzutan.

Hori horrela baldin bada ere, idazki hau egiten dizuegun Gotzainok, helburu zehatz batzuk aurrean jarri nahi dizkizuegu, gure ustez lehentasuna merezi dutenak, beti Pastoral Idazki honen gaiari loturik. Helburu horiek elizbarruti bakoitzean mamitzean, bertako jokaera pastoralari egokitu beharko zaizkio, noski.

**87.** Honela zehaztuko genituzke helburu horiek:

- Erantzukizun pastoralak beren gain hartu behar dituzten laikoen oinarriko heziera osoa indartzea, eta baita beraien trebatze berezia ere pastoralgintzaren alor ezberdinetan iharduteko.
- Laikoen familia barruko ebanjelizazio-ekintzari balio gehiago eskaintzea, senar-emazteen heziera osoan eta egin behar duten heziera-lanerako gaitzean ardura gehiago jarritz.
- Laikoen iharduera sustatu eta iraunaraztea gizarteko talde, mugimendu eta elkarteetan, munduko errealitateak Ebanjelioko balorez bizikiago argitzeko eta beren kristau-fedearen testigantza sinesgarriagoa emateko.
- Laikoen apostolutza elkartuaren era ezberdinen bereizketa eta koordinazioa bideratzea, alor honi dagokion elizbarrutiko erakunderen baten bidez, esate baterako Apostolutza Sekularraren Ordezkaritzaren bidez.
- Laikoen ebanjelizazio-ekintza sustatu, talde, mugimendu eta elkarte laikalen bidez eta, batik bat, Ekintza Katolikoaren bidez, nahiz orokorra nahiz berezitua.
- Parrokietako Kontseilu pastoralak, edota Junta parrokialak, eratzen aurrera egitea, pastoralgintza bideratu eta burutzeko unean laikoen ardurakidetzari bideak urratu eta eskaintzeko.

**88.** Ez ditugu ahaztuta utzi nahi, Elizaren ebanjelizatze-ekintzak gaur egungo giro sozio-kulturalean dauzkan zailtasunak; baita zuentzat, laikoentzat, ere. Joan den otsailaren loean batera egindako lehenengo gure Gutunean hala aitortzen genizuen. Horregatik, Pastoral Idazki berri hau ere, orduan idazten genizkizuen hitz berez amaitu nahi dugu: «Zalantzarik gabe, zuek eta guk, guztiok aurkituko ditugu zailtasunak Elizaren ebanjelizatze-eginkizunaren zerbitzua egitekoan. Baina handiagoak dira pozerako eta itxaropenerako dauden arrazoiak. Gure konfiantza Jesukristo gure Jaunaren gudanako maitasun eta ahalmenean dago jarria».

«Zabal ditzagun gure bihotzak itxaropenera. Onar ditzagun uste osoz gure Jaunaren deia eta dohainak. Zerbaiti buruz bestelako sentipenak baditugu, eska diezaiogun apalki Jaunari, bihozberri gaitzala bere Espirituaren indarrez eta, hartu dugun deiaren arabera, Ebanjelioaren zerbitzari leial egin gaitzala, hori nahi duelako guretzat gure Jaunak, eta itxaron ere hori itxaroten dutelako gure senideek».

Iruñe eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz  
1996ko martxoaren 19a  
*San Joseren festaburua*

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea